

HIZNET. HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKORAKO SAKONTZE EGITASMOA
2014-2015 IKASTURTEA

EUSKARA ETA OFIZIALTASUNA NAFARROAN

2015-2019 LEPEGINTZALDIRAKO
IRAGARPEN BAT

Joseba Beltza / Tutorea: Xabier Erize

0. AURKIBIDEA

1.	LABURPENA.....	4
2.	SARRERA.....	5
2.1.	BESTE ESTATUTUEKIN ALDERAKETA.....	6
2.1.1.	FORU HOBEKUNTZA.....	6
2.1.2.	EUSKARAREN FORU LEGEA.....	7
2.2.	LEGEAREN JATORRIA ETA GARAPENA.....	9
2.3.	LEGEA GAINDITU ETA EUSKARA LURRALDE OSOAN OFIZIAL IZENDATZEKO BEHARRA.....	11
3.	METODOLOGIA.....	13
4.	EMAITZAK.....	15
4.1.	ALDERDIEN HAUTESKUNDE PROGRAMAK.....	15
4.1.1.	UPNren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	15
4.1.2.	GEROA BAIn HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	15
4.1.2.1.	GEROA BAIn HAUTESKUNDE PROGRAMAKO HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZKO ATALA.....	17
4.1.3.	EH BILDUren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	18
4.1.3.1.	EH BILDUren HAUTESKUNDE PROGRAMAKO HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZKO ATALA.....	22
4.1.4.	PODEMOS-AHAL DUGUren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	25
4.1.4.1.	PODEMOS-AHAL DUGUren HAUTESKUNDE PROGRAMAKO HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZKO ATALA.....	25
4.1.5.	PSN-PSOEren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	27
4.1.6.	PPNren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	28
4.1.7.	IZQUIERDA-EZKERRAren HAUTESKUNDE PROGRAMA.....	28
4.1.7.1.	IZQUIERDA-EZKERRAREN HAUTESKUNDE PROGRAMAKO HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZKO ATALA.....	30
4.2.	HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN, ALDERDIZ ALDERDI.....	33
4.2.1.	ALDERDI BAKARRARI BURUZKOAK EZ DIRENAK.....	33
4.2.2.	UPNren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	33
4.2.3.	GEROA BAIn HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	35
4.2.4.	EH BILDUren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	41

4.2.5. PODEMOS-AHAL DUGUren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	44
4.2.6. PSN-PSOEren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	46
4.2.7. PPNren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	46
4.2.8. IZQUIERDA-EZKERRAren HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN.....	48
4.3. HAUTESKUNDE EMAITZAK.....	51
4.3.1. HAUTESKUNDE EMAITZA OROKORRAK.....	51
4.3.2. HAUTESKUNDE EMAITZAK EREMU EUSKALDUNEAN.....	51
4.3.3. HAUTESKUNDE EMAITZAK EREMU MISTOAN.....	52
4.3.4. HAUTESKUNDE EMAITZAK EREMU EZ EUSKALDUNEAN.....	52
4.4. NAFARROAKO GOBERNURAKO PROGRAMA AKORDIOA.....	53
4.4.1. ADOSTUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA.....	54
4.4.2. ADOSTASUNAREN FALTAN GARATZEKO GERATU DIREN GAIK.....	56
5. EZTABAIDA.....	57
5.1. LEHENTASUNEZ JORRATUKO DIREN GAIK.....	57
5.2. HIZKUNTZA POLITIKAREN KUDEAKETARAKO OINARRIAK FINKATZEA.....	59
5.3. MARKO JURIDIKOA.....	60
6. AZTERTUTAKO TESTUAK.....	63
6.1. HAUTESKUNDE PROGRAMAK.....	63
6.2. PRENTSAKO ARTIKULUAK.....	63
6.3. HAUTESKUNDE EMAITZAK.....	67
6.4. GOBERNU PROGRAMA.....	67
7. BIBLIOGRAFIA.....	68

1. LABURPENA

Aurtengo Nafarroako Foru Hauteskundeen harira, susmoa bazen UPNren bi hamarkada baino gehiagoko agintaldiaren ondotik kolore ezberdineko gobernu berri baterako aukera egon zitekeela. Susmoa bete egin da eta, hurrengo hilabete eta urteetan, ezustekorik gertatu ezean, 2015-2019 legegintzaldian Uxue Barkosek gidatutako gobernua izanen dugu nafarrok.

Gobernu aldaketak dudarik gabe hizkuntza politika berria ekarriko du; oraindik lanean hasi ez arren, adibidez, sinbolikoa den, baina Nafarroan bizi izan dugunarekin sinbolikoa baino gehiago den, lehen berrikuntzak dakartzate gobernu eta Parlamentuaren osaketa berriek: lehen nafar presidente eta Parlamentuko presidente euskaldunak ditugu.

Dena den, euskararena gai zabala da eta legegintzaldiak alor horretan zer ekar diezagukeen aurreikustea da nire asmoa. Batik bat Euskararen Foru Legearekin zer gertatuko den aztertu nahi izan dut, legea gainditzeko aukerarik dagoen.

2. SARRERA

Frankismo ondorengoko Nafarroako hizkuntza politikaren arau-oinarri nagusiak 80. hamarkadan ezarri ziren. Orduan onartu zuen Parlamentuak, 1982an, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa edo Nafarroako Foru Hobekuntza bezala ere ezaguna¹, eta lege orokor honen aginduari erantzunez, 1986an, Euskararen Foru Legea.

Nafarroako Foru Hobekuntzaren 9. artikulua hauxe dio:

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.

2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

*Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.*²

II. Errepublikan zonalde euskaldunak aipatu eta bereizten ziren, baina koofizialtasuna Nafarroa osorako aldarrikatzen zen (Izu, 2013). Era berean, 1980an Nafarroako Parlamentuaren gehiengoak euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza ofizial bihurtzearen alde egin zuen, urte hartako maiatzaren 19ko manifestazio handiaren aldarrikapenak, horrela, bere eginez. Estatutu baten pareko denaren negoziatzaileek baina (UCD eta UPN), adierazpen horri uko egin eta euskara ofizial lurralde jakin batean izatea adostu zuten.

Euskararen Foru Legeak zehaztu zituen *eskualde horiek, euskararen erabilera ofiziala arautu* eta euskararen *irakaskuntza antolatu*. Hiru eremutan banatu zuen Nafarroa: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna. Geroztik, eremu euskaldunean euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera; eremu mistoan euskara ez da ofiziala, baina sustapenerako araubide berezi bat aurreikusten da bertan, babesten den hizkuntzaren bizitzarako

¹ Hemendik aurrera *Foru Hobekuntza* erabiliko dut.

² 13/1982 Legea, Lege Organikoa, *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*

beharrezko baldintzak sortuko dituen ekintzak izanen dituen; eta eremu ez euskaldunean euskarak ez du inolako aintzatespenik, irakaskuntzaren alorra aipatzen da bakar-bakarrik, zeinean, inolako betebeharririk eduki gabe, dagoen eskariaren arabera eta promozio irizpideei jarraiki, euskararen irakaskuntza eremu honetan botere publikoek osoki edo partzialki finantzatu dezaket.

Orduan gobernuan zen PSN-PSOEren ekimenez eztabaidagai izan zen legeak Alderdi Moderatuaren, Koalizio Popularraren eta Talde Mistoaren babesarekin lortu zuen. UPN abstenitu egin zen, beretzat eremu mistorik ez zelako behar eta eremu euskalduna handiegia zelako, eta EAK kontra bozkatu zuen. Herri Batasunak ez zuen lege egitasmoaren eztabaidetan parte hartu, erabat ukatzen zuelako.

2.1. BESTE ESTATUTUEKIN ALDERAKETA

2.1.1. Foru Hobekuntza

Espainiar Estatuan Nafarroako Foru Hobekuntza bakarra da, gainerako estatutuen aldean, hizkuntza ofizial bat izan eta leku jakin batera mugatzen duena. Aipatu Parlamentuaren ebazpenaren kontra ez ezik, ofizialtasuna zehazteke zegoen eremu batera zedarritzea, kontsulta-organo aitortua zen Euskaltzaindiaren aholkuen kontrako erabakia zen, honek Eusko Autonomi Erkidegoko edo Valentziako estatutuetan jasotakoaren antzeko artikuluren bat ezartzea proposatzen baitzuen.

Galiziak, Eusko Autonomi Erkidegoak, Kataluniak, Balear Irlek eta Valentziako Autonomi Erkidegoak hizkuntza bana dute gutxienez (Kataluniak bi, katalana eta aranera) gaztelaniaz gain ofiziala dena, eta ofizialtasuna lurralde osorako da autonomia horietan. Valentziako Erkidegoko estatutuan administrazioan eta irakaskuntzan lurralde ezberdinak definitzen diren arren³,

³ Administrazioaren eta irakaskuntzaren alorretan hizkuntza baten eta bestearen nagusitasunaren araberrako lurraldeak mugarritu dira Valentzian eta zenbait eremu valentzieraren irakaskuntza eta erabilerratik salbuetsita egon daitezkeela aurreikusita da. Dena den, biztanleen %87 bizi da valentziera nagusi dela dioen eremuan.

2006ko lege erreformaren ondotik, “Valentziako Erkidegoan berezko hizkuntza valentziera” dela esaten da, eta “valentziera” dela “Valentziako Erkidegoko hizkuntza ofiziala, gaztelaniarekin batera, zeina Estatuko hizkuntza ofiziala den”⁴.

Besterik da ofizialtasunik ez duten eta estatutuek babestu beharrekotzat hartzen dituzten beste hizkuntza batzuen kasua. Hizkuntza hauekiko, zenbait autonomiatan, eremuak bereizten dira. Adibidez Aragoi aragoierarekin, nahiz eta oraindik ez den zehaztu zein den herriz herrikako lurralde hori; Asturiasen bable edo asturierarekin lurraldeak mugatu dira, baina ez da legerik garatu; eta Gaztela Leonen galegoa hitz egiten den Bierzoarekiko errespetua izan behar dela dakar estatutuak. Alabaina, esan bezala, hizkuntza hauek ez dute *ofizial* izendapenik, *babestu beharrekoak* dira.

Foru Hobekuntzako 9. artikulua badu beste bereizgarri bat, esanguratsua. Artikuluak ez ditu ez gaztelania ez euskara berezkitzat hartzen, gaztelaniak Konstituzioaren goragoko adierazpena duenez, euskara soilik gelditzen delarik aitortza hori gabe. Juan Cruz Allik dioen moduan (Alli, 2001) identitate ikur izatearen ideiatik ihes egin nahi izan zen ez-aipatze honekin. Konstituzio espainiarrak nazionalitate eta erregioen artean banatzeko “berezko hizkuntza” izatea jartzen du erdigunean. Berezko hizkuntzek lehentasuna dute bizitza kolektiboan, betiere gaztelaniaz gain, hau estatu osoan hizkuntza komuna baita.

Bestalde, hizkuntzei dagokien Foru Hobekuntzako artikulua badu beste ezaugarri deigarri bat. Parlamentuak aurrera ateratakoari muzin eginez berriz ere, Foru Hobekuntzaren negoziatzaileek, erabiltzen ziren euskara edo “lengua vasca” bezalako izendapenak alde batera utzi eta Aldundiak frankismoan zerabilen, kutsu arkaikoa duen eta antzinako romanceren parekoa den *vascuence* hitza txertatu zuten araubidean.

2.1.2. Euskararen Foru Legea

⁴ 5/1982 Legea, uztailaren 1ekoa, Lege Organikoa, *Estatuko Aldizkari Ofiziala*.

Espainiako Konstituzioaren eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren markoan adostu zen Euskararen Foru Legea, 1986an⁵. Bere ezaugarri ezagunena zonifikazioarena da, dagoeneko azaldu dudana, eta honen baitan, Foru Hobekuntzarekiko berritzaileena, akaso, Eremu mistoa sortu izana da, Iruñea, hiririk populatuena, barne hartzen duena. Patxi Zabaletaren ustez, euskara ofiziala ez izateko asmatu zuten Foru Hobekuntzan ez dagoen eremu mistoa, Iruñean euskara libre balitz Nafarroa osoan litzatekeelako libre (Zabaleta, 2015).

Baina, bestela ere, beste aspektu batzuetan gainerako erkidegoetako berezko hizkuntzen ofizialtasuna araupetzeko legeak baino murriztagoa da Euskararen Foru Legea. Hasteko, Nafarroakoak hizkuntza eskubideak bermatuko dituen adierazpen bat falta du, adibidez, Eusko Autonomi Erkidegokoarekin konparazioan⁶. Gregorio Monrealen iritziz (Monreal, 2003), euskararen aldeko diskriminazio positiboa egiteko garrantzitsua zatekeen lege proiektuan egon eta behin betiko legea onartzeko kendu zen atariko.

Administrazioaz ari delarik, Estatuko Administrazio periferikoaren eginbeharrik ez da jasotzen; informazioa euskaraz jasotzeko eskubiderik ez da aitortzen eta horren ordainetan *komunitate autonomoko irratia eta telebistetan presentzia progresiboa* egon behar dela agintzen du, sustapen neurri bakar bat ere zerrendatu gabe; merkataritza, kultura, kirol... arloetan euskarazko aukera eskaintzeko konpromisorik ez da agertzen; helduen euskalduntze-alfabetatzea ez da aipatu ere egiten; nahiz eta gero Euskararen Kontseilua sortu, ez da aurreikusten organo normalizatzailearik; eta euskara ikertu, babestu eta sustatzen duten erakundeekiko elkarlanik ez da aurreikusten.

Euskararen Foru Legearen arauetariko askok, gainera, ez dute aginduzko izaerarik, gomendio hutsak dira edo administrazio publikoari zuzendutako zuzentarauak (Eneriz, 1987), gobernuaren esku utziz egin daitekeena eta ez daitekeena egin, herritarren hizkuntza eskubideak lege baten arabekoak baino gobernuan daudenen arabekoak izatea dakarrelarik horrek.

⁵ 18/1986 Legea, abenduaren 15ekoa, Euskararen Foru Legea, *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*.

⁶ 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.

2.2. LEGEAREN JATORRIA ETA GARAPENA

PSN-PSOEren agintaldian Foru Legea onartu eta lehen hizkuntza politika abian jarri ondoren, gaur egunera bitartean garai ezberdinak bereiz daitezke, lege orokorraren aplikazioa beti izan baita eztabaida gaia.

1991-1995 bitartean Juan Cruz Alli, orduan UPNren alderdiko eta herrialdeko presidentea zenarekin, PSN-PSOEren hizkuntza politikari jarraipena eman zitzaion nolabait. Hala ere, Alliren gobernuak bere alderdian bertan izan zuen oposizio nabarmenetakoena, abertzaleen esanetara gobernatzen ari zirela leporatzen baitzitzaion. Esanguratsua da 70/1994 Foru Dekretuak, martxoaren 21ekoak, bere motiboen atalean herritarren hizkuntza eskubideak aipatu ondotik urte berean, UPNko sektore batzuen kritiken eraginez, 135/1994 Foru Dekretuarekin, uztailaren 4koarekin, aldatu izana. Hala, “hizkuntza eskubideen” lekuan “segurtasun juridikoa” aipatu zen; aplikaziorako guneetan “enpresa publikoei” eginiko erreferentziak desagertu egin ziren; zirkuitu elebidunen “derrigortasunetik” “aukera izatera” pasa zen; departamentu planak ez ziren bete beharrekoak; Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorrak izaera erabakitzailea galdu eta aholku-emailea hartu zuen; “euskaraz harremanetan jartzeko eskubidea” “euskaraz zuzentzeko eskubidea bihurtu zen”; inprimaketa elebidunak mugatu eta eremu ez euskaldunean desagertu egin ziren; eta errotulu elebidunen derrigortasuna kendu edo mugatu egin zen. Eta gainera, arau hau garatzeko planik ere ez zen onartu. Nafarroako Presidente zenak, liskar horiek tarteko, bere alderdia utzi, CDN sortu eta PSN eta EArekin osatutako hiru alderdikoaren gobernu laburraren ondotik, 1996an, UPN itzuli zen gobernura.

1999tik batez ere, PSN-PSOEren laguntzarekin batzuetan, euskararen sustapenaren kontrako politika argia egin zuen UPNk. Horrela abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuarekin ordezkatu nahi izan zuen 1994koa, hau neurritz kanpokoa zela esanez. Berriz ere aipatu zen orduan “segurtasun juridikoa” gai gisa, “hizkuntza eskubideak” beharrean. Dekretu honek indar ezberdinek jarriko helegiteengatik ez zuen aurrera egin, baina otsailaren 29/2003 Foru Dekretuaren bidez - akats juridikoak zuzenduak zekartzan honek- ia bere horretan mantentzea

ekarri zuen. Besteak beste, zirkuitu elebidunak ez ziren gehiago aipatuko; Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Orokorra organo gisa desagertu egin zen; hizkuntza eskakizunak asko malgutu ziren; aurreko planaren epeak desagertu egin ziren; eremu euskaldunean ekitaldi administratiboak orain elebitan egin behar ziren, kontrakorik eskatu ezean behintzat; mistoan komunikazioak elebitan bidaltzea ez zen derrigorrezkoa jada; eta mistoan ez ziren “beharrezko neurriak” hartuko, baizik eta gobernua “posible egiten saiatuko” zen.

2003 eta 2009 artean, CDN berriz sartu zen gobernuan UPNrekin koalizioa eginez. 2007an Euskararen Nafar Institutua sortu zuten, Zuzendaritza Orokorren ordezkoa, nolabait, eta 2011tik aurrera Euskarabidea bezala ezagutuko dena. Koalizioa ordea, UPNk hautsi zuen esanez CDNk ez zuela berarekin bat egin Euskararen Foru Legeari egin nahi zitzaion aldaketa baten kontra. Aldaketan eremu mistoan bederatzi herri sartzea nahi zen. UPNk bakarrik jarraitu zuen gobernuan, baina 2011-2012 bitartean PSN-PSOErekin gobernatu zuelarik ere, hizkuntza politika ez zuen askorik aldatu.

Aipaturiko 2/2010 Foru Legeaz gain, eremu mistoan hainbat herri sartzea ahalbidetu zuena, Euskararen Foru Legeak ez du beste aldaketarik izan 4/2015 Foru Legea, otsailaren 24koa, atera bitartean. Lege honen bitartez eremu ez euskalduneko familiei, zehaztuko den eskari mailaren arabera, euren haurrak D ereduan matrikulatzeko aukera emanen zaie.

Bukatzeko, esan beharra dago, lege eta dekretuez gaindi, UPNren gobernuak euskararen kontra esan eta egin dituztenengatik egin direla ezagun eta horren harira, Europako Erregio edo Hizkuntza Gutxituen Itunaren garapenez arduratzen diren adituen ohartarazpenak jaso dituela.

Esaterako, adituen batzordeak argitaratutako txostenetan aipatu izan da behin baino gehiagotan euskarak batez ere Nafarroako komunikabideetan bizi duen egoera, eta hizkuntza eremu misto eta ez euskaldunean ikasteko dauden zailtasunak. Zentzu horretan gomendioak egin zaizkio Nafarroako Gobernuari sustapen lanak egin eta Ituneko III. atalak hizkuntza bati eskaintzen dion babes, eremu mistoan euskarari ematea azter dezan.

2.3. LEGEA GAINDITU ETA EUSKARA LURRALDE OSOAN OFIZIAL IZENDATZEKO BEHARRA

Foru Hobekuntzak eta Euskararen Foru Legeak ez dute euskara Nafarroako berezko hizkuntzat hartzen, ez dituzte hizkuntza eskubideak aitortzen, lurraldea zonaldeka zatitzen dute, eta ondorioz, praktikan euskara Nafarroako eremu jakin batekoa baino ez dela aditzera ematen dute, eremu horretatik kanpoko euskaldunei, batez ere, (Nafarroan bizi den euskaldunen gehiengoa) euskaraz bizi ahal izateko zailtasunak jartzen dizkietelarik. *Batez ere* diot, Euskararen Foru Legeak dituen gabeziez gain, eremu euskalduneko nafarrek ere ez dutelako hizkuntza eskubiderik egunerokoan eremu euskalduntzat hartutakotik kanpo.

Egoera horrek Nafarroan bizikidetza errealerako zailtasuna sortzen du. Eremutzeak zurruntasun arazo larriak sortzen ditu eta ofizialtasuna erosoan izan daiteke politika malgua egiteko (Monreal, 2003). Hizkuntza gatazka belaunaldi belaunaldi mantentzen da gure herrialdean, eta mantenduko da euskara, gaztelania bezala, Nafarroako berezko hizkuntzat hartu eta ondorioz eskubide berdintasuna ziurtatuko duen lege berri bat idatzi eta berau aplikatzeko behar diren neurri eta baliabideak jarri arte. Hamarkadetako lana da hau, egoera soziolinguistikoaren aniztasuna kontuan hartuz egin behar dena, pixkana, baina epeak zehaztuko dituen plangintza estrategiko baten bidez, burutu behar dena.

Bizikidetzarako, euskara Nafarroa osoan ofizial izendatzea da abiapuntua, beraz. Ofizialtasuna adierazpen soil bat izan daiteke, baina adierazpen horretatik eratortzen dira gainerako arau guztiak. Espainiako Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 sententziak argi dio: herritarrek, hizkuntza ofizial batean aritu nahi dutelarik, berau erabiltzeko eta erakunde publikoetara hizkuntza horretan zuzentzeko eskubideaz gain, erantzuna hizkuntza berean jasotzekoa ere badute; bestalde, herritarrek erakunde publikoen komunikazioak hizkuntza horretan jasotzeko betebeharra izanen dute (prozesu penaletan salbuespenak egon daitezkeen arren), eta betebeharrak hori, kasu batzuetan, hizkuntza ezagutzera zabaltzen da, batez ere derrigorrezko irakaskuntzaren bidez lortuko litzatekeena;

erakunde publikoek hizkuntza horretan egin behar lukete herritarrekin, baita arau eta ekintza ezberdinak hala argitaratu ere (hemen toponimia, onomastika ofiziala, eremu ezberdinen eta zerbitzu publikoen errotulazioa sartuko lirateke). Ofizialtasuna horixe da eta horiexek dira gaztelaniaz bizi nahi duenak Nafarroan dituen eskubideak. Euskararendako estatus bera eta bere normalizaziorako lege eta neurri aproposak dira euskaraz bizitzea nahi dugunok behar duguna.

Lan honen helburua euskarari Nafarroa osoan ofizialtasuna emanen liokeen lege berri bat sortzeko eta, ondorioz, Foru Hobekuntzaren erreforma egiteko, 2015-2019 legegintzaldian egon daitezkeen aukerak aztertzea da, gaur egungo abiapuntutik aurreikuspen bat egitea, euskarak Nafarroa osoan ofizial izan behar duela uste dugunok horren araberako ondorioak atera ditzagun.

Hori dela eta, 2015eko Foru Hauteskundeetarako alderdiek osaturiko hauteskunde programak, kanpainak, emaitzak eta gobernu berrirako programa aztertu eta ondorioak aterako ditut.

3. METODOLOGIA

Euskararen Foru Legea gainditzeko egon daitezkeen aukerak eta arriskuak neurtzeko, batetik Parlamentuan sartu diren zazpi alderdien (UPN, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu, PSN-PSOE, PPN eta I-E) programetan euskararekin loturiko adierazpen, neurri, proposamen eta bestelakoak jaso ditut. Euskararekin lotura izan dezaketen hitz guztiak hartu ditut kontuan bilaketa egiterako garaian: euskara, euskal, euskaldun, eleanitz, elebidun, ofizialtasun, Euskararen Foru Legea, zonifikazioa, eremuak, zonaldea, hizkuntza, hizkuntza politika... Lehenik eta behin, hizkuntza politikari buruzko atalak dituzten programen kasuan, atal ezberdinetan gure aztergaiari buruz esaten dena jaso dut eta gero, berriz, hizkuntza politika bera. Aipatu beharra dago Geroa Bai eta EH Bilduren programen euskarazko bertsioak aztertu ditudala; gainerako alderdiek gaztelaniaz aurkeztu dituzte euren hauteskunde programak, nahiz eta Ezkerraren programak euskarazko zenbait ahapaldi badakartzan, hizkuntza politikari dagokion atala, kasu.

Bestetik, alderdien hauteskunde kanpainako ekitaldi, adierazpen eta elkarrizketen inguruko prentsa idatziko albisteetan egin dut hitz gako berdin bilaketa. Kanpaina aztertu nahi izan dut ikusteko alderdiek hizkuntza politikari garrantzirik eman dioten eta ematekotan zein zentzutan eman dioten. Diario de Navarra, Diario de Noticias, Gara eta Berria egunkarien maiatzaren 9tik 24ra bitarteko aleak, 62 guztira, arakatu ditut eta intereseko ziren albiste eta artikuluetako pasarteak hona ekarri, Diario de Navarra, Diario de Noticias eta Gararen kasuetan euskararako itzulpenak eginez (hiru egunkari horietan ez dut aurkitu lan honen aztergaiarekin loturiko euskarazko albisterik).

Bestalde, hauteskunde emaitza orokorrak eta Euskararen Foru Legeak zedarrizten dituen eremuen arabekoak ekarri ditut hona. Eremu bakoitzean Parlamentuan sartu diren zazpi alderdien bozka kopurua zenbatu eta eremu bakoitzean geratuko litzatekeen D'hondt legearen arabeko Parlamentuaren simulazioa egin dut, informazio horrek Euskararen Foru Legea aldatu edo bere horretan uzteko egon daitezkeen aukeren inguruan lagun diezadakeelakoan.

Eta azkenik, alderdien programekin egin bezala, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-Ek adostutako gobernu programan hizkuntza politikaren gainean esaten dena jaso dut.

Lau alde horiek aztertuz (alderdien programak, hauteskunde kanpainak, hauteskunde emaitzak eta gobernu programa) nire ondorioak adieraziko ditut lan honen bukaeran.

4. EMAITZAK

4.1. ALDERDIEN HAUTESKUNDE PROGRAMAK

4.1.1. UPNren hauteskunde programa

UPNren hauteskunde programak (UPN, 2015) ez dakar hizkuntza politikari edo euskarari buruzko atal bereziturik. Alabaina, gure gaiarekin loturiko jakingarriak aurki ditzakegu 3. atalean, hezkuntzari dagokionean, hain zuzen ere. Nafar eleanitzak helburu izanik, euskara eta gaztelania berezko hizkuntzak eta, ingelesarekin batera, hezkuntza zentroak osatzen dituzten hizkuntzak direla esaten da, modu deskribatzailean. Helburuekin lotuago, adierazten da hezkuntzak lortu behar duela pertsonen hizkuntza horiek, kultura eta ohiturak bezala, balora ditzaten. Inposizioen kontra, eta elkarbizitzaren alde, askatasunean oinarrituriko nafar hizkuntzen ikuspegi integratzailearen alde egiten dela esaten da jarraian.

Zonifikazioari dagokionez, zehatz esaten da eremu osorako eta, *baita euskara inoiz hitz egin ez den eremuetarako, euskalduntze eredu uniformatzaileetatik* aldendu behar dela. Eredu horien alde egitea UPNren iritziz, aniztasun sozial, kultural eta hizkuntzazkoaren kontra egitea da, eta hizkuntza ereduak egoera soziolinguistiko bakoitzera egokitu behar dute. Aurretik esandakoaren ondorio gisa defendatzen da zonifikazioa, eta berau, Europako beste leku batzuetan (ez da esaten zeinetan) egiten denarekin antzekoa dela eta errealitateari erantzuten diola gaineratzen da.

4.1.2. Geroa Baien hauteskunde programa

Geroa Baik hizkuntza politikari atal oso bat eskaintzen dio (Geroa Bai, 2015), baina bestela ere, euskararekin loturikoak datoz hezkuntza, autogobernua, kultura eta gazteei buruzko ataletan. Halaber, esan beharra dago, EH Bilduren

programa eta hau direla bakarrak euskaraz, bertsio osoan, eskaintzen zaizkigunak⁷.

Hezkuntzaren atalean sarrera gisa, orain arteko gobernuari buruz esaten da milaka urtetako hizkuntzaren eta kulturaren ukazio kontzientea egin duela eta gizartea zatitzea nahi izan duela, herritar batzuk bere herrian atzerritar eta beste batzuk lur honen jatorrizko sustraietariko batekiko erabat ezjakin bihurtuz. Halaber, UPNren gobernuari atzerriko hizkuntzan oinarrituriko programak euskararen aurka egiteko sortu izana leporatzen zaio.

Lehentasunez hezkuntza sistema barne-hartzailea, berrikuntzan, eleaniztasunean eta parte-hartzean oinarritua, ezarri behar dela dio Geroa Baik; Nafarroaren aniztasuna eta berezko bi hizkuntzen ezagutza nahikoa ziurtatuko duena, aukeratutako eredu linguistikoa gora behera atzerriko hizkuntzak ikasteari trabarik sortu gabe. Eusko Autonomi Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriarekin gai honetan elkarkidetzan aritu behar dela eta ikastolen itunak, jantokien kostuak eta eremu ez euskalduneko garraioa aztertu behar direla aipatzen da.

Hizkuntza-ereduen inguruan, eta berezko hizkuntzei dagokienez, egun indarrean daudenak eguneratu eta berriz formulatu behar direla adierazten da batetik. Bestetik, ikasleak euskalduntzeko eraginkorra dela eta, D eredia eskaria dagoen zonalde guztietara zabaldu beharra dagoela eta A eredia, euskararako gutxieneko hurbilpen gisa, gero eta jende gehiagok aukeratzea bermatu behar dela ere bai.

Hezkuntzaren atalean agertzen da berriz euskara batxilergoari eta lanbide heziketari buruz aritzean. Beste hizkuntza-ereduen pareko bihurtzeko, adibidez, adierazten da batxilergoko D ereduan asteko 30 eskola-ordu ezarri behar direla, eta lanbide heziketa Nafarroa osora zabaldu behar dela, euskaraz barne.

Autogobernuaren atalean ere bi aipamen egiten zaizkio euskarari. Gure aztergaiarekin loturikoa da bat, batez ere: gaztelania eta euskara Nafarroako

⁷ I-Ek ere atalen batean edo bestean euskara txertatzen du, baina bertsioa bestela gaztelaniaz aurkeztua da; I-Eren hizkuntza politika aztertzean berrartuko dugu gai hau.

hizkuntza ofizialtzat aitortu behar direla esaten da. Beste aipamenean kulturaren, hizkuntzaren, hezkuntzaren eta ikurren inguruko eskuduntza aldarrikatzen da.

Kulturaren alorrean, Nafarroako indar-gune nagusienetakotzat, besteren artean, hizkuntza eta kultura nortasun handia aipatuta, euskal kultura aitortu, babestu eta sustatu behar dela esaten da. Era berean, euskaraz bizi ahal izateko, euskarazko kultur eskaintza bermatzeari garrantzia ematen zaio.

Hizkuntza politikari dagokion atalarekin hasi aurretik, bukatzeko, gazteek, beren atalean, Nafarroa euskaldun eta eleanitza nahi dutela diote, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko 100%eko eskaintza aldarrikatzen dute.

4.1.2.1. GEROA BAren hauteskunde programako Hizkuntza Politikari buruzko atala

Geroak Baik, gainerako politiketan bezala, hizkuntza politikarako zeharkakotasuna ardatz duela adierazten du. Hizkuntza eskubideetan elebitasunik orekatuena lortzea helburu duelarik, euskara gutxiengoarena eta gutxitua dela kontuan hartuta, euskara sustatu behar dela defendatzen du. Era berean, Hizkuntza Politikaren atalari egiten zaion sarrerarekin jarraituz, aipatzekoa da kontrajarri egiten dituela UPNren gobernuen politikak, alde batetik, eta Europako Erregio edo Hizkuntza Gutxituen Itunean sustaturiko printzipioak, beste aldetik. Azken urteetako Foru Administrazioari hizkuntza muga artifizialak ezartzea, euskara sustatzeko aurrekontuak murriztea (besteak beste euskaltegiei), hizkuntza paisaian euskara kentzea, Euskalerrria irratitari lizentziarik ez ematea, ETBren seinale digitala zailtzea, D ereduaren kontrako funtsik gabeko akusazioak egitea, euskara administrazioan erabiltzea oztopatzea... leporatzen dio, eta zerrendaturiko guztia aipaturiko Itunaren aurkakoa dela ematen du aditzera. Dena den, euskararen ezagutzak, hala ere, aurrera egin duela, eta, bestalde, D eredia lurralde osora zabaldu dela adierazi eta poza erakusten du Geroa Baik, *horrela, eragotzi egingen da UPNko gobernu guztiek legeaz egin duten interpretazio murrizkorra eta bidegabea.*

Geroa Baik nahi duen hizkuntza politika berdintzailea (eskubideei dagokienean), borondatezkoa (herritar bakoitzak zein hizkuntza erabili aukeratuko duela esan nahi da, eta Administrazioak erabakia bermatu behar duela esaten da), euskararen aldeko diskriminazio positiboan oinarritua, malgua, sosegatua, progresiboa (egoera soziolinguistiko bakoitzari erreparatuz egiten dena), europarra (Europako Itunaren printzipioekin bat egiten duena), eraginkorra (baliabideduna) eta zeharkakoa (departamentu bakarrera mugatzen ez dena) da.

Bukatzeko, epe laburrera begirako lehentasunezko jarduera gisa, laburbilduz, 135/1994 Foru Dekretuaren antzeko araua onestea (29/2003 Foru dekretua indargabetzeko), Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia sortzea (zeharkakotasuna lantzeko eta euskara berezko hizkuntzatzat duten gainerako administrazioekin lan bateratua egiteko) eta Nafarroa izen ofizialtzat har dadin kudeaketa egitea zerrendatzen dira. Epe ertain-luzera aldiz, *hizkuntza eskubideak murrizten dituzten arau guztiak erreformatzea* (Foru Hobekuntzan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizial gisa jartzetik abiatuta); administrazio guztiek aurreko hauek guztiak kontuan hartzea; arartekoaren figura sendotzea (hizkuntza eskubideen harira); euskararen aldeko komunikazio estrategia berria sortzea (irudi berritu eta integratzailea aipatzen dira); euskarazko komunikabideak sustatzea (lizentzietan hori kontuan hartuko dela esaten da); ETBren seinale digitala hartzea erraztea; helduen euskalduntze eta alfabetatzea babestea, bultzatzea eta duintzea; euskara zerbitzuak sortzea; euskararen alde ari direnekin elkarlana sustatzea; ikerketa soziolinguistikoak bultzatzea; eta Estatuko Gobernuari NAN eta gidabaimena euskaraz ere egin ahal izateko eskaria egitea aipatzen dira.

4.1.3. EH Bilduren hauteskunde programa

EH Bilduren hauteskunde programan (EH Bildu, 2015) ere Hizkuntza Politikari eskainitako atal bat aurki dezakegu, baina honetaz gain, euskararen gaia zeharka edo zuzenean, beste atal batzuetan ere ageri da. Geroa Baien programarekin egin bezala (eta dagokionean, gainerako alderdiekin ere horrela egingen dut), lehenik eta behin atal hauetan jasotzen dena laburbilduko dut eta gero azpiatal batean landuko dut hizkuntza politikari, zuzenean, dagokion planteamendua.

Hala bada, Gizarte Politikei dagozkien 2015-2019 legegintzaldirako neurri zehatzetan erabiltzaile eta profesionalen hizkuntza eskubideak errespetatuko direla adierazten da, eta horretarako toki eremuaren eta foru eremuaren artean nahiz zerbitzuen artean euskarazko zirkuituak ziurtatuko direla.

Osasungintzari dagokionez, Osasunbidearen euskalduntze progresiborako Plan Estrategiko bat martxan jartzea aurreikusten da, eta Plan Estrategiko horren hainbat ildo zerrendatzen: euskaldun eta lanpostuen arteko aldea eta herritarren hizkuntza eskubideen egoera aztertzea, zirkuitu elebidunak sortzea, lanpostuen esleipena arautzen duen dekretu forala berregitea (osasungintza publikorako sarbidean euskara aintzat hartzeko) eta nafar guztiek arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidea modu aktiboan defendatzea eta sustatzea.

Koalizioa turismoaz ari delarik, bada aipamen bat euskararekin lotu daitekeena, nahiz eta zehaztapen hori behar genukeen ziurtasun osoa izateko, jarduera ekonomiko honek ematen dituen aukeren arteko bat euskalduntasuna ezagutaraztea dela esaten baita.

Hezkuntzaren atalean, alderdi ia guztiek egiten duten moduan, jorratzen dira gehien bat (hizkuntza politikari buruzko atalak alde batera utzita) lan honetarako intereseko diren puntuak. Oinarri ideologikoetan, hasteko, hezkuntza sistema propioaren beharra azpimarratzen da, *gure* herriaren nortasunetik, kulturatik, ingurumenetik, eta, hizkuntzatik abiatuko litzatekeena. Eskola euskaldun eleanitzaren baitan, euskara Nafarroako hizkuntza izanik herritar orok euskalduntzeko eskubidea duela, euskararen gutxieneko ezagutza bermatu behar dela eta elebitasunetik abiatuta eleaniztasuna sortzeko proiektu ebaluagarriak sortuko direla, esaten da. Oinarri ideologikoekin jarraituz unibertsitateari buruz esaten direnen artean, euskararen marjinazioa dagoela, eta unibertsitate publiko herritar eta euskaldunaren aldarrikapena aipatu behar dira.

Halaber, *hezkuntza eredu propioa* lortzeko neurri zehatzetan, ikastolekin itunak negoziatzerakoan hauen gainerako itunpeko ikastetxeekiko desberdintasunak kontuan hartu behar direla esatearekin batera, egin duten eta egiten duten euskalduntze lana errekonozitu behar zaiela esaten da, gero, zonifikazioa bertan behera uzten den bitartean, Nafarroako Foru Komunitate

osoan euskaraz ikasteko aukera eskainiko dela esateko. Euskararen Kontseiluak egindako proposamenak kontuan hartuko direla gaineratzen da puntu honetan.

Jarraian, landa eskolei, 0-3 urteko zikloari, helduendako hezkuntzari, Lanbide Heziketari eta Unibertsitateari buruzkoetan txertatzen du gaia EH Bilduk. Esaterako, landa eskolei dagokienez zonifikazioa salatzen da murrizketekin batera; 0-3 urteko zikloan euskarazko eskaintza zabaltzeko neurriak hartuko direla, hizkuntza eskubideak bermatze aldera; helduendako hezkuntzan euskarazko eskaintza oso urria dela salatzen da; eta Lanbide Heziketa eta unibertsitateari buruz euskalduntzeko plan estrategikoak diseinatu eta martxan jarriko direla, bukatzeko⁸.

Kulturaren atalean azpiatal oso bat eskaintzen zaio euskarari, *Euskara, nafar kulturaren euskarria* deiturikoa. Euskara nafar kulturaren eta identitatearen bereizgarritzat hartzen da, eta horregatik lehentasuna ematea agintzen du EH Bilduk kultur politiketan. UNESCOk berak gizadiaren ondaretzat hartu duela eta nafarren ondasunik preziatuenetako bat dela esaten da jarraian. Hori dela eta, instituzioek aitortza egin behar dutela, laguntza publikoak eman behar zaizkiola, euskarazko kultur ekimen publiko eta pribatuak lehenetsi behar direla eta, euskarak presentzia urria duen lekuetan batez ere, euskarazko kultur jardueren sustapena egin behar dela esaten da. Aipaturiko babes eta laguntza publikoaz gain kontzientziazio kanpainak egin behar direla eta Administrazioak euskarazko kultur jarduerak Nafarroa osoan programatu behar dituela gaineratzearekin bukatzen da azpiatal hau.

Kirolaren alorrean ere azpiatal bat dakar programak euskarari buruzkoa, aurretik euskarari lehentasuna eman behar zaiola eta bere ezagutza eta normalizazioa bultzatu behar direla adierazten badira ere. Aipaturiko azpiatalean euskara ezagupenen transmisio bidetzat hartzen da eta, horrekin lotuta, jarduera fisiko eta kirol guztiak, eskola orduetatik kanpokoak barne, euskaraz eskaintzea proposatzen da. Bide horretan, federazio eta klubei itzulpen zerbitzuak eskaintzea eta hiztegi erraz eta sinpleak sortzea aurreikusten da. Kirolaren transmisiorako komunikabideetan generoari, jarduerari, kirolei eta hizkuntzari trataera orekatua

⁸ Kasu honetan, Osasunbidearekin egin ez bezala, ez da plan estrategiko hori gehiago garatzen.

ematea agertzen da helburutzat, eta gaiarekin lotuta, euskararen presentzia nahi du EH Bilduk administrazioaren publizitate euskarrietan, kanpainetan eta komunikazioetan.

Kultura eta jatorri ezberdinetako pertsoneri buruzko atalean ere, gaiari tarte zabala eskaintzen zaio. Oinarri ideologikoetan adibidez, ijito Herriari buruz, herri honen kultura eta ezaugarriak ezagutarazteaz gain, euskara eta euskal kultura ijitoei ezagutarazi behar zaizkiela aipatzen da, ijitoen kultura ere euskal kulturaren parte dela eta. Bestalde, kultura eta hizkuntza aniztasuna aberastasun, eta euskara eta euskal kultura Nafarroako herritar guztien arteko elkarbizitzarako eta elkar-ezagutzarako komunikazio eta kohesio tresna gisa ulertzen direla esaten da, administrazio publikoek zentzu horretan sustatuko dutelarik hizkuntza hau. Euskara hizkuntza gutxitua eta, zonfikazioak haren normalizazioa eta garapena eragozten duelarik, Nafarroako eskualde askotan oso presentzia urrikoa delako D ereduaren sustapena kultur eta jatorri ezberdinetako familietan ere egitea beharrezkotzat hartzen da. Gainera, aurrekoarekin harremanean, gizartearen, kulturaren nahiz lanaren arloan aukerak murriztu ditzakeelako, euskara ez jakitea segregazio faktorea izatera irits daitekeela uste du EH Bilduk.

Arlo honetan aurreikusten diren neurri zehatzetan helduek euskara doan ikasteko aukera ematea; hori gertatzen ez den bitartean, egoera sozioekonomiko larrian dauden pertsonendako laguntza programak inplementatzea; hezkuntza arloan euskara ikastea bermatzen duten hizkuntza-ereduetara bideratzeko programa orokorretan, jatorri edo kultura batzuetako pertsoneri zuzendutako lerro espezifiko bat txertatzea; harrera sarearen lanaren osagarri gisa itzulpen zerbitzu bat sortzea (euskara-migratzaileen jatorrizko hizkuntzak, migratzaileen jatorri hizkuntzak-euskara); eta hizkuntzaren arloko harrera programak osatzea, zerrendatzen dira.

Herritarren askatasunei buruzko atalean ere bada euskararen inguruko aipamenik. Hain zuzen ere, poliziak Nafarroako herritarren hizkuntza aniztasuna, besteren artean, errespetatu behar duela esaten da.

Bukatzeko, hizkuntza politikarekin hasi aurretik, esan beharra dago Gatazkaren konponbideari dagokion atalean, Eusko Autonomi Erkidegoarekin

koordinazio eta elkarlan instituzionalerako organoak sortzea nahi dela, arlo guztietan, hizkuntzan barne.

4.1.3.1. *EH BILDUren hauteskunde programako Hizkuntza Politikari buruzko atala*

Atal honetan hiru azpiatal nagusi ikus ditzakegu: ideia nagusiak, oinarri ideologikoak eta 2015-2019 legegintzaldirako neurri zehatzak deritzenak. Bidenabar, esan dezadan, azkeneko azpiatal hau ere, neurri zehatzei dagokiena, atalka datorkigula, gorago aipaturiko arloei beste batzuk gehituz.

Idea nagusietan euskara berezko hizkuntzatzat eta normalizatu beharrekotzat hartzen da, *gure kultura eta nortasunaren funtsezko osagarri*, izateaz gain. Hizkuntza Politika berri, burujabe eta kanpo esku hartzerik gabearen beharra azpimarratzen da, eta berau organikoa, ez asistentziala, zeharkakoa, eta herritar eta eragileekin osatutakoa izanen dela esaten zaigu. Euskararen balio erantsia, berarekin denok irabazten dugula eta euskaldun izate kontzientzia eta euskaraz bizitzeko gogoia (*herri nahia beraz*, esaten da) elikatuko dituela egiten du promes sarrera moduko honetan EH Bilduk.

Oinarri ideologikoetan adierazten da euskara euskaldun egiten gaituena, nafarron ondarea, munduari eskaintzen diogun ondarea, kohesiorako eta integraziorako tresna eta kulturaren funtsezko osagarria dela. Bertako hizkuntzatzat hartua, denok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dugula adierazten da. Kontrara, indarrean den hizkuntza politikarekin herritarren hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen eta, dugun legediarengatik, nafarrak bizi diren tokiaren araberako eskubideak dituztela salatzen da.

Bestalde, azpiatal berean, euskararen normalizazioaz zer ulertzen den azaltzen da. EH Bildurendako normalizazioa herritar guztiondako eguneroko arlo denetan euskara ohikoa izatea da. Espainierak duen estatusa eta parekotasunezko egoera da lortu beharrekoa, eta honekin lotuta, euskararen normalizazio osoa ezagutzaren orokortzearekin batera etorriko dela, hau da,

herritar guztiek jakinen dutenean euskalduna hizkuntzaz aldatzera ez behartzeko adina euskara.

Hizkuntza politika berri batek eskaini behar lukeenari buruz adierazten da, batetik, euskara lurralde osoan ofiziala izanen den *lege berri bat* behar dela, eta bestetik, nafar guztiok berdintasun egoera batean tratatuak izan behar dugula, eskubide berdinak izan behar ditugula. Euskararen ezagutza eta erabilera ziurtatzeko hainbat esparrutan neurriak hartu behar direla esaten da jarraian, eta non eta zein neurri zerrendatzen dira gero: irakaskuntza euskaraz eskaintzea; helduen euskalduntzea, komunikabide euskaldunak eta euskal kultura sustatu, lagundu eta bermatzea; administrazioa euskalduntzea; lan mundua euskalduntzeko laguntza eraginkorrek ematea; euskararen erabilera sustatzea; euskara berezko hizkuntza duten gainerako lurraldeekin elkarlana garatzea; eta euskararen alde ari diren eragileekin elkarlanean aritzea.

2015-2019 legegintzaldirako neurri zehatzetan, irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, hedabideak, sozioekonomia, euskal kultura eta aisia eta kirola bereizten dira. Irakaskuntzaren, kulturaren eta aisia eta kirolaren alorretan hezkuntzari, kulturari eta kirolari buruzko atal nagusietan esaten dena biltzen eta laburbiltzen da, nolabait. Besteetan bada orain arte jaso ez dugunik.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea, adibidez, babes instituzionala eta legala eskainiz sektore estrategiko izendatzearen alde egiten du koalizioak, eta euskaltegiekin hitzarmen bat egitea nahi da, hauek saretzeko, beren finantzaketa egonkortzeko, lana planifikatzeko eta funtzionamendu egokia izateko, epe luzeko plangintza orokor baten baitan. Euskaltegiak diruz laguntzea, doakotasunean urratsak ematea, euskaltegien sarea Nafarroa osora zabaltzea eta euskalduntzearen aldeko sentsibilizazio kanpainak egitea dira garatzen diren beste neurri zehatzak, programan batean edo bestean topa daitezkeen ideiak, ikusi dugunez.

Administrazioari dagokionez, hamabi neurri zehatz dakartza programak. Bat edo beste lehenago ere aipatu ditudanak dira, baina gehienak orain arte hona ekarri gabeak.

Euskarabidearen eskumenak izanen dituen eta hizkuntza politika berri bat diseinatu, martxan jarri eta betetzen dela ziurtatuko duen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza sortzea proposatzen du EH Bilduk, gobernuko departamentu bakoitzean euskararen atal bat aurreikustearekin batera, esaterako. Organoekin jarraituz, Euskararen Kontseilua berritu, administrazioko eta euskalgintzako eragileak bertan ordezkaturata egon eta erakunde honi erabakiak hartzeko eskumena eman nahi zaio. Honekin batera, Euskararen Kontseiluak euskararen egoeraren diagnostiko osoa egin eta Nafarroako hizkuntza politikaren oinarria izanen den plan estrategiko *errealista, gauzagarria eta eraginkorra* diseinatuko du.

Araupetzeari dagokionez, lehenago jaso dugun euskararen lege berriaren harira, indar politikoez, euskalgintzak eta herritarrek osatutako lantalde batek lege berrirako proposamena landuko duela eta legebiltzarrak bi urteren buruan onartuko duela agintzen da. Berau *nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko tresna* izanen dela esaten da, eta hizkuntza eskubideak bermatu behararekin jarraituz, beherago, administrazioan euskara txertatzeko neurriak zerrendatzen dira: langileen profilen diagnostikoa egitea, lanpostu publikoen profila definitzea (jendaurreko lanpostu berriek euskararen eskakizuna; gainerakoetan zehaztu behar derrigortasunezkoak edo merezimenduzkoak diren), administrazioko langileen euskalduntzea planifikatu eta baliabideak jartzea eta zirkuitu elebidunak sortzea aipatzen da hemen ere, euskarazko zerbitzua bermatzeko eta euskara lan-hizkuntza izan dadin urratsak emateko. Halaber, *euskara nabarmen baztertzeko asmoz* indarrean jarri diren zenbait dekretu, ebazpen eta foru agindu baliogabetuko lirateke.

Administrazioaren komunikazioari buruz, Nafarroako Gobernuaren irudi korporatiboa aldatzea eta komunikabideetan egiten den publizitatean euskararen presentzia ziurtatzea nahi du koalizio abertzaleak. Protokolozko harreretan euskararen presentzia ziurtatuko dela gaineratzen da.

Arnasgune deritzenetan erakundeekin eta eragileekin elkarlanean politika berezituak eginen direla esaten da, eta euskaldunak biztanleen %70 baino gehiago diren herrietan lanpostu publikoetan langileak euskaldunak izanen direla.

Administrazioaren inguruko neurri zehatzekin amaitzeko, esan beharra dago EH Bilduk toki entitateen eta Nafar Gobernuaren arteko lankidetzaren proposatzen duela (euskara berezko hizkuntzatzat duten lurraldeekin ere egingen dutela esaten da hemen ere), eta udal euskara zerbitzuak Nafarroa osora zabaldu behar direla.

Hedabideei dagokienez, sektorea estrategiko izendatuko luke EH Bilduk eta hitzarmenen bidez euskarazko hedabideendako azpiegitura eta laguntzak finkatu. Honekin batera, euskarazko telebista eta irratiak lurralde osoan ikusi eta entzutea bermatuko dela esaten da. Bestalde, euskarazko hedabideetan publizitatea euskaraz egingen dela eta publikoak diren edo diruz laguntzen diren hedabideek ehuneko bat (ez da zehazten zenbat) euskaraz emanen dutela dakar dokumentuak.

Sozioekonomiaren alorrean, EH Bilduren hizkuntza politikaren laburpenarekin amaituz, euskara plana duten enpresendako diru-laguntzak, euskara bermatzen duten enpresek kontratazio eta esleipenetan lehentasuna, eta administrazioak berak herritarrak, bezero garen heinean, babestuko dituela agintzen da.

4.1.4. Podemos-Ahal Duguren hauteskunde programa

Nafarroak nafar biztanleek erabakitzen dituzten eskumenak izan behar dituela defendatzen duenean, Podemos – Ahal Duguk (Podemos, 2015), eskumen adibide gisa, eredu ekonomiko, sozial eta kulturalarekin batera eredu linguistikoa ere aipatzen du. Adierazpen hori kenduta, euskararekin loturiko guztiak hizkuntza politikari dagokion atalean jorratzen ditu eta, ondorioz, horixe jasoko dugu hemen, jarraian.

4.1.4.1. *Podemos – Ahal Duguren hauteskunde programako Hizkuntza Politikari buruzko atala*

Euskara eta kultura: nafar identitatearen bi parte (gaztelaniaz) izenburuarekin datorkigun atala bitan zatituta dago eta lehenengoa kulturari dagokio eta bigarrena euskarari.

Sarrera gisa, euskararen aldeko apustua irekitasunaren eta etorkizunaren aldekotzat du Podemos–Ahal Duguk, eta euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzat lortu nahi du. Horretarako diagnostiko oso bat egin, eta euskara berezko hizkuntzatzat duten lurraldeekin partekatutako hizkuntza politika propio bat osatu behar dela dio alderdiak. Hizkuntza Politika horrek pertsonen gain baliabideak behar dituela eta euskararen irudia duindu behar dela ere esaten du.

Lan ildoekin jarraitzen du dokumentuak. Euskararen balioespena eta hizkuntza eskubideen aitortza; *UPNren gobernuek sustatutako “euskara kanpo inposizioa” delako ideia* gainditzea; *marko juridiko-instituzionala aldatzea* (honekin batera esaten da Euskararen Foru Legea ez dela betetzen eta sortutako dekretuek bere garapena galarazten dutela); eta administrazioan euskararen erabilera sustatzea (zeharkakotasunez, planifikatuz eta administrazioarekiko harremanetan euskaraz ere aritu ahal izatea bermatuz), zerrendatzen dira puntu honetan.

Epe motzera begirako neurrien artean lehenengoa gure aztergaiarekin loturikoa da. Podemos–Ahal Duguk dio *euskararen lege berri bat* lantzeko lehen pausuak emanen dituztela, eta bitartean indarrean dauden dekretuak bertan behera utzi eta euskaraz eta euskara ikasteko eskubidea bermatuko zaiela herritar guztiei. Halaber, hizkuntza politikarako aurrekontua handitzea, departamentu guztietan eta beren menpeko erakunde autonomoetan euskara planak martxan jartzea eta Euskararen Kontseilua, euskararen normalizazioan ari diren eragileek lekua izan dezaten, berritzea, aurreikusten dira. Tarte hau bukatzeko hiru egoera hauek zuzendu behar direla esaten da: helduen euskalduntze-alfabetatzean ari direnei azken urteetan jasotzea zegokien dirua ematea, ETB digitalean ikusi ahal izatea eta Euskalerrria irratitari lizentzia ematea, eta Nafarroako Gobernuaren komunikazio elektronikoa %100ean euskaraz egon dadin *borrokatzea*.

Epe ertainera begirako neurrien artean lehenengoak izenburu berezitu bat dakar: *Hizkuntza politika egoki bat sortzea*. Hizkuntza politika hori alderdien

sigletatik aparte eta luzera begirako ikuspegiarekin diseinatu eta martxan jarri behar dela esaten da. Hemen ere diagnostiko bat egin eta horren arabera helburuak finkatu beharra, batetik, eta, bestetik, eragile eta adituek diseinuan parte hartu behar dutela esaten da. Jarraian *Marko juridiko-instituzionalaren aldaketa* izenburua dator. Euskararen Foru Legeaz gain, hainbat arau multzo eguneratu behar direla eta zeharkakotasunaren garrantzia azpimarratzen dira berriz. Eta azkenik, *Euskararendako baliabideak handitzea* puntuaren baitan neurri zehatz hauek zerrendatzen dira (aurretik aipatu diren zenbait errepikatzeaz gain): normalizazio prozesuetan dihardutenei, fiskalitatean barne, laguntzak ematea; Aurrekontu Orokorretan gai honendako diru kopurua handitzea; euskararen erabilera sustatzea eta eskaintza handitzea Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean; euskarazko praktikak egitea ahalbidetzen duten enpresei abantaila fiskalak ematea; belaunaldi berriek euskara ikas dezaten sarbidea erraztea; helduen euskararen erabilera sustatzea; eta euskara lan munduan sustatzeko neurriak hartzea.

4.1.5. PSN – PSOEren hauteskunde programa

PSNren programak (PSN, 2015) ez dakar hizkuntza politikari edo euskarari buruzko atal bereziturik, baina gaia aldeaz edo moldez lantzen da hezkuntzari, Nafarroako Foru Erkidegoari eta kulturari dagozkien ataletan.

Hezkuntzari dagokion atalean, eredu linguistiko ezberdinetan ikasten duten ikasleen arteko elkarbizitza eta esperientziak partekatzea bultzatuko dela eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, gaztelanian eta ingelesean oinarrituriko elebitasunerantz joko delarik, euskararen presentzia, indarrean den araudiaren, eskariaren eta akademiaren adostasunarekin batera, ziurtatuko dela, esaten da.

Honetaz aparte, *Euskara irakaskuntzan* atala ere aurki dezakegu, bi puntutan garatzen dena: euskara eta euskaraz ikasteari buruz PSNk 18/1986 Legearen (Euskararen Foru Legea) neurri bateko aldaketa babesten duela eta euskararen erabilera eta ikaskuntza bultzatuko dela esaten da; bestalde, eremu euskaldunean Lanbide Heziketa euskaraz emateko neurriak hartu behar direla eta

unibertsitate publikoan Euskararen Plan Estrategikoa kontuan izan behar dela dator idatzita.

Nafarroa Foru Erkidego gisa deritzon atalean, beste batzuen artean, hizkuntza ez dela bereizketarako eta diskriminaziorako elementu izan behar eta euskarak berezko kultura eta pertsonen arteko komunikazio tresna izan behar duela esaten da.

Bukatzeko, kulturari dagokionez, euskarazko kultur jarduerak sustatuko direla adierazten da, euskara kultura hizkuntza eta komunitatearen identitate ikurretako bat dela eta.

4.1.6. PPNren hauteskunde programa

PPNren hauteskunde programan (PPN, 2015) ere ez dator hizkuntza politikari eskainitako atalik, baina euskararekin loturiko bi puntu aurki daitezke. Batetik PPNk Administrazioan lan egiteko euskararen ezagutzaren baldintza kendu behar dela dio, bere meritua izaera ere mugatuz eta baldintza gisa jasoz soilik Eremu Euskalduneko Hezkuntza edo liburutegietako postu jakin batzuetan. Bestetik, hizkuntzen sustapena aipatzen da esan gabe zein diren hizkuntza horiek, eta ingelesezko hizkuntza-ereduei buruz ari delarik, behar bereziak dituzten ikasleek beren berezko hizkuntzan ikasi behar dutela azaltzen zaigu.

4.1.7. Izquierda-Ezkerraren hauteskunde programa

Izquierda-Ezkerraren hauteskunde programan (Izquierda-Ezkerra, 2015) atal oso bat eskaintzen zaio hizkuntza politikari, baina orain arte egin bezala, gainerako ataletan gaiarekin lotuta azaltzen direnak jasoko ditut lehendabizi.

Lehen atalaren baitan, *Nafarroa sozial, anitz, baketsu eta elkartasunezkoari* buruz ari delarik, I-Ek dio Nafarroan boterean egon direnek beren ikuspegia inposatu dutela eta horren aurrean herritar askok ez duela bere hizkuntzazko nortasuna (beste batzuk ere zerrendatzen dira) aitortua sentitu. *Aberasgarria* den hizkuntza aniztasunaren eta ezberdin izatearen alde egitearren, hainbat

konpromiso hartzen ditu, hala nola, batetik herritar guztiak beren hizkuntza eta kultura sentimenduak direnak direla ere sentimendu horiek aseko dituen politikaren alde eginen dutela, eta adostasun politikoak bultzatuko dituztela legedian (beste aspektu batzuen artean, hemen ere) hizkuntza aniztasunaren errespetua jaso dadin.

Demokrazia erradikalari buruz aritzean, Foru Hobekuntzaren erreforma aldarrikatzen da, oinarrizko proposamenen artean eta aldaketetako bat euskarari, gaztelaniarekin batera, lurralde osorako koofizialtasuna ematea litzateke, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuz. *Autogobernuari eta erabakitze ahalmenari* dagokion azpiatalean ideia errepikatzen da eta *lege foralaren bidez* bi hizkuntzen erabilera ofiziala eta normala eta hizkuntza eskubideak bermatuko direla gaineratzen da.

Gazteria, aisia eta kulturari buruz jardutean berriz, gaztelaniazko nahiz euskarazko kultura publikoari gerturatu behar zaizkiela esaten da.

Alderdi gehienek egiten duten moduan, Izquierda-Ezkerrak ere euskara batik bat hezkuntza gaiekin dakar. Besteak beste, hezkuntza eleaniztuna nahi du I-Ek eta helburu horretara bidean esaterako, helduen euskalduntze-alfabetatzerako zentroen aurrekontuak murriztu direla gogora ekarri ondoren, D eredua, nahi duten guztiendako, Nafarroa osora zabaltzeko egin den Euskararen Legearen aldaketa datorren agintaldian betearaziko dela egiten du promes. Lege aldaketa hau Izquierda-Ezkerrak bultzatuta lortu dela oroitarazten da dokumentuan, eta hizkuntza normalkuntzaren eta euskararen sozializazioan aurrerapauso handia dela esaten.

Unibertsitate publiko, eleanitza eta kalitatezkoa nahi dela esatean, euskara ere sartzten da asmoen artean, euskara komunikazio eta formazio hizkuntza izatea nahi lukeelako, programaren arabera, alderdi honek. Puntu berezitan dator, halaber, euskara irakastearen alde eginen dela.

Berezko bi hizkuntzen normalizazioa eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza bermatze aldera, hezkuntza agenteekin adostutako hizkuntza politika garatu behar dela ere adierazten da. Horretarako adituen ekarpen eta hausnarketak jasotzea,

hizkuntza-ereduen indargune eta ahulguneen azterketa egitea, eleaniztasuna bultzatzea, irakasleek beharrezko profilak izan ditzaten plan bat diseinatu eta garatzea, eta magisteritza ikasketetan hizkuntzen ikasketa indartzea aurreikusten dira.

Bestalde, hezkuntzaren atalarekin amaitzeko, esan beharra dago I-Eren hauteskunde programan hizkuntza-eredu ezberdinetan ikasten duten ikasleen arteko elkar-ezagutza eta esperientzien trukea sustatzeko ideia behin baino gehiagotan agertzen dela.

Gazteria eta kultura elkartzen dituen atalaz gain, bada kulturari buruzko atal oso bat eta hor ere irakur daiteke euskarari eginiko erreferentziarik. Kulturak hizkuntza aniztasuna, gaztelania eta euskara, hartu behar ditu bere baitan, denok goza dezagun, batetik. Liburutegiei buruz aritzean, bestetik, liburuarekiko ezberdinak diren euskarrien eta funtsen euskarazko eskaintza handitu behar dela esaten da. Eta azkenik, kultur ondare material eta ez materialari buruz, euskarazkoa finantzatu eta bultzatu behar dela esaten da, kultur ekimen eta egitasmo euskaldunak babestuz.

4.1.7.1. Izquierda-Ezkerraren hauteskunde programako Hizkuntza Politikari buruzko atala

Hizkuntza politikari buruzko atala elebitan ageri zaigu, dokumentua bestela, ia osotasunean gaztelaniaz aurkeztua izan arren. *Hizkuntza-politika: euskararen aldeko itun sozial baten alde* du izenburua atalak, eta hiru parte ezberdinak ditzakegu: sarrera moduko azalpena, orain arteko hizkuntza politikari buruzko atala eta, azkenik, zerrendatzen diren proposamenak.

Sarreran Nafarroako Erkidegoan bi berezko hizkuntza ditugula eta euskara milaka urte dituen kultura ondare unibertsala eta kohesio sozialerako elementua izan behar duena dela esaten da. Honekin lotuta, euskararen garapena eta berreskurapena nahiz hizkuntza-normalizazioa eginbeharrak (*gure eginbeharra* esaten delarik ez dakigu herritarrei, politikariei ala I-Eri buruz ari den alderdia) dira eta horretara jarriko den hizkuntza politika nahi dela adierazten da. Hizkuntza

politika hau errespetutik, pertsonok modu askean aritzeko dugun eskubidetik eta adostasunetik abiatu behar dela esaten da, eta horretarako I-Ek *Euskararen aldeko Itun Sozial* baten alde egiten du.

Hurrengo azpiatalean zonifikazioaren deskribapen labur bat egiten da, baliogabetutako 372/2000 Foru Dekretua eta 29/2003 Foru Dekretua aipatzen dira hizkuntza eskubideen garapenean atzerakada handia izan zirela esateko, eta Nafarroako Gobernuak Europako Erregio edo Hizkuntza Gutxituen Ituna ez duela betetzen esaten da. Azken aipamen horri tiraka, Europako adituek osatutako batzordeak egindako aholkuak ekartzen dira gogora: euskararen erabilpen politikoarekin amaitu behar dela (beltzez azpimarratuta dator hau dokumentuan), diskriminazio positiboa egin behar dela, departamentuen arteko administrazio-organoa sortu behar litzatekeela, euskararen alde dihardutenekin harremanak hobetu behar direla eta euskararen irakaskuntza publikoa Nafarroa osoan ahalbidetu behar dela. Eta jarraian proposamenak zerrendatzen dira.

Orain arte aipatutakoez gain, honakoak esaten dira: euskararen egoera administrazioetik hasi eta gizarte harremanen arloraino hobetu behar dela; euskararen presentzia urria den lekuetan A, B eta D hizkuntza-ereduak eskaini behar direla, nahikotasun irizpideak kontuan hartuta betiere; leku horietan bertan sentsibilizazio kanpainak egin behar direla; komunikabideetan euskararen erabilera bultzatu behar dela; eta helduen euskalduntzea landu behar dela, dokumentazioa zein materiala argitaratuz, esaterako.

Nafarroan, eskualderik bereizi gabe, euskararen ofizialtasunaren egokitasuna onestea planteatzen dutela, hizkuntza politika egoera soziolinguistiko diferenteetara egokituz, eta azken honekin lotuta, Nafarroa osoan euskara ofizial bihurtzeari begira Foru Hobekuntzaren eta Euskararen Legearen erreformaren alde egin nahi dutela ere esaten da atal honetan.

I-Eren programarekin amaitzeko, azken proposamenak hauexek dira: zirkuitu administratibo elebidunen aplikapena; unibertsitatean euskarazko ikerketa lanak martxan jartzea; A eredia eskualde batzuetan indartzea, euskarara hurbiltzeko modua delako; instituzioen arteko koordinazioa; eta elebitasuna

normaltasun osoz txertatzea Nafarroako entitate publikoetako ikur eta identitate-elementuetan.

4.2. HAUTESKUNDE KANPAINA PRENTSAN, ALDERDIZ ALDERDI

4.2.1. Alderdi bakarrari buruzkoak ez direnak

Kanpainak iraun duen bitartean bi egunkari artikulu argitaratu dira alderdi bakar bati buruzko atalean sartu ezin ditudanak, beste alderdi batzuei buruzkoak ere badirelako aldi berean. Hauek azaldutakoan hasiko naiz alderdiz alderdiko informazioa ematen.

Lehenik eta behin Diario de Navarrak, EFEren eskutik, SER kateak antolaturiko hautagaien inguruko eztabaidari buruz jaso zuena aipatu behar dut. Bertan hauxe irakur zitekeen (Diario de Navarra, 2015a):

“Hautagai guztiek defendatu zuten euskara Nafarroako ondare kultural gisa eta bere politizazioa arbuiatu zuten, batzuek hizkuntza honekiko mugak daudela ulertzen dutelako eta besteek bere inposaketa egitea nahi dela uste dutelako”.

Bigarrenik, Gararen artikulu bat aipatu behar dut. Hau ere eztabaida bati buruzko kronika da, kasu honetan Iruñeko hautagaiekin ETBn egin zenari buruzkoa. Alberto Pradillak zioen (Pradilla, 2015a):

“Asironek, Gomezek eta Eguinok hirigintzan, gizarte eskubideetan edo euskarari dagokionean eredu alternatiboari forma eman zioten”

4.2.2. UPNren hauteskunde kanpaina prentsan

UPNk gure aztergaiaren inguruan esandakoak jasotzen dituzten bost albiste eta Diario de Navarrako artikulu berariazkoa argitaratu dira hauteskunde kanpaina zehar. Lehenik eta behin azter dezagun Diario de Navarraren “Euskararen egungo zonfikazioari eustiko zenioke?” galderari zer erantzun zion Javier Esparzak (Diario de Navarra, 2015b):

“Errealitateari erantzuten dio eta bere ikuspegia integratzailea da”. “Nire ustez egungo hizkuntza zonifikazioak gure errealitateari den bezalakoa izanda, eta ez batzuek izatea nahi luketen bezala, erantzuten dioten neurri proportzionalak aurreikusten ditu. Era berean, egungo zonifikazio ereduak bat egiten du, gainera, Europako leku batzuetan eskualdetako edo gutxiengoarenak diren hizkuntzei ematen zaien tratamenduarekin. Nafarroako hizkuntzen ikuspegi integratzailea defendatzen dugu, askatasunean eta inposaketarik ezan oinarritzen den bizikidetzaren proposamena da gurea”.

Gainerako bost albisteetatik hiru Diario de Noticiasek jaso ditu eta beste bana Diario de Navarrak eta Garak.

UPNk maiatzaren 15ean nafar jubilatuen elkarte batzuekin egindako kanpainako ekitaldiari buruzko kronikan, Javier Esparzak esandakoen inguruan osatu zuen albistea Diario de Noticiasen (Diario de Noticias, 2015a):

“Esparzaren iritziz, UPNren Gobernuaren alternatiba kaosa da, Nafarroa Euskal Herrian urtzea, euskara inposatuko den gizartea eta 1.500 euro baino gehiago irabazten dutenek zerga gehiago ordaintzea”

Maiatzaren 17an buruturiko kanpainako ekitaldi nagusian esandakoen ingurukoak dira gainerako albiste guztiak.

Diario de Navarrak hala (Arnedo, 2015a), Beatriz Arnedoren eskutik Enrique Mayak ekitaldi horretan eginiko adierazpen batzuen gainean idatzi zuen:

“Bere alderdiak “beldurraren” eta “kontuz, badatoz euskaldunak” dioen diskurtsoa erabili izana ukatu zuen. “Hemen ez du inork euskaldunen eta euskalduna den ezeren kontra ezer. Independentisten kontra daukagu daukagun guztia, Nafarroatik atera eta Euskal Herrira eraman nahi gaituzten separatisten kontra”

Garan (Diaz, 2015a) Martxelo Diazek idatzi zuen, ironiaz:

“Jose Javier Esparzak bereei jakinarazi zien, sekretuko nekromantea bailitzan, zein ondorio ekarriko dituen Apokalipsiko lau zaldunen arteko hitzarmenak (Podemos, EH Bildu, Geroa Bai eta I-Eri buruz).

“Ikurrinak ekarriko ditu, Nafarroa osoan funtzio publikora sartzeko euskara jakiteko derrigortasuna suposatuko du, Ertzaintzak Foruzaintza ordezkatu du, “hiltzaileak omenduko dira eta ez biktimak” eta Nafarroa Gasteizko Legebiltzarreko 25 eserlekutan urtuko da”.

Diario de Noticiasen Javier Encinasek batetik (Encinas, 2015a), jaso zuen:

“Esparzak lau sigla hauen asmoei buruz esan zuen (EH Bildu, Geroa Bai, Podemos eta I-Eri buruz ari zen), (...) Gobernua hartuko balute “beren bandera ikurrina” izanen dela, “euskara jakin beharko” dela “funtzionario izateko Nafarroako edozein lekutan” eta “omenaldiak hiltzaileendako” izanen direla “eta ez biktimendako”.

Eta Juan Angel Monrealek, bestetik, bere kronikan hauxe jaso zuen (Monreal, 2015a):

“(ekitaldiari buruz) Brotxa lodiko arratsaldea. Gu ala beraiek, euskaldunak ala nafarrak, espainiarrak denak. Eta hautagaietan bakar batek ere euskaraz hitzik egin gabe”.

4.2.3. Geroa Baien hauteskunde kanpaina prentsan

Geroa Baiekin loturikoak dira kanpainan zehar euskarari buruz argitaratu ziren albiste gehienak, hemezortzi guztira. Diario de Noticiasen hauetatik zortzi jaso zituen, Diario de Navarrak eta Garak launa eta Berriak bi. Dena den, aurrenik Barkosek Diario de Navarraren galderari erantzundakoa jasoko dugu (Diario de Navarra, 2015b):

“Zonifikatzea ez da demokrazia batean egokia”. “Ez diogu egungo zonifikazioari eutsiko. Eskubideen zonifikazioa, edozein direlarik ere, ez da demokrazia batean egokia eta, gainera, desoreka faktorea dela ulertzen

dugu. Nafarroako edozein puntutan hiritarrek dituzten bi hizkuntzetatik nahi dutena aukeratzeko eskubidea defendatzen dugu”.

Hauteskunde kanpainaren hasieran SERek antolaturiko alderdien arteko eztabaidaren kronikan, Diario de Noticiasen Elena Urabayenek Uxue Barkosek esandakoak jaso zituen (Urabayen, 2015a):

“UPNk sortu duen antieuskalduntasuna gairatzearekin zerbait irabazi izanen dugu”.

Maiatzaren hamarrean Tuteran eginiko ekitaldiaren inguruko albisteen artean lauk jaso zuten gure gaiarekin loturiko berririk. Horrela bada, Diario de Navarra, informazioaren iturri gisa Europa Press aipatuz, hauxe jaso zuen, Barkosek esandakoen harira (Diario de Navarra, 2015c):

“Euskararen “erabilpen politikoagatik” pena azaldu zuen eta “nafar lurralde osoan” hizkuntza honengatik “harrotasuna berreskuratzea” premiazkotzat jo”.

J.A. Martinezek Diario de Noticiasen jaso zuen (Martinez, 2015):

“Geroa Baik Tuteran gauzaturiko ekitaldi politikoan “nafar lurralde osoan euskararen harrotasuna berreskuratzeko” lan egiteko konpromisoa hartu zuen, orain artean hizkuntzarekin egin den erabilpen politikoarekin amaitzeko. Uxue Barkosek (...) ziurtatu zuen “nafar guztiok bi hizkuntza” ditugula “gaztelania eta euskara, eta euskararen erabateko erabilpen eta politizazio egoera gairatu” behar dugula. Zentzu honetan, gaineratu zuen “inposaketarekin” amaitzeko lan egin behar dela, “beren seme-alabendako hezkuntza euskaraz aukeratu nahi duten gurasoengatik eta hainbat herritarrek hizkuntza honetan informazioa eskatu edo hartuak izan daitezten. Foru Erkidego osoan ez du inork arazorik gaztelaniarekin eta bai euskararekin zenbait zonaldetan. Nolanahi ere, hau ez da soilik eskubideen kontua, bada pertzeptzioena ere. Euskararen harrotasuna berreskuratu behar dugu modu positibo eta eraikitzailean”.

Garan, Martxelo Diazek, Javier Esparzak Erriberan egindako adierazpen batzuei kontrajarriz, Uxue Barkosek Tuteran esandakoak zekartzan bere artikuluan (Diaz, 2015b):

“(Uxue Barkosek) “aldaketa kapaz, lasai eta irmo baten” alde egin zuen, besteak beste “UPNk hauteskunde interesengatik finkatu duen Nafarroa zatikatua” gainditzea barne hartuko duena, baita “euskararen erabilpen politikoarekin” amaitu eta “lurralde osoan hizkuntza honengatiko harrotasuna berreskuratuko” duena ere.

Berrian, informazio bera jaso zen (Berria, 2015a):

“Uxue Barkosek Nafarroaren zatiketari aurre egiteko eskatu zuen eta euskararen erabilera politikoa deitoratu”.

Beste hiru albistetan jaso zen Geroa Baik kanpainen zehar eginiko hizkuntza politikari buruzko proposamenaren azalpena. Berrian adibidez (Berria, 2015b):

“Euskararentzat “diskriminazio positiboa” eskatu zuen atzo Koldo Martinezek, Geroa Baiko hautagaiak. Iruñean egindako ekitaldian, euskara “nafar guztien ondarea” dela nabarmendu zuen Martinezek. Hautagaiak koalizioaren asmoak azaldu zituen: “Ez diogu inori ezer inposatuko, baina ezta oztopatu ere”.

Diario de Navarrak, berriz ere Europa Pressen bidez, jaso zuen (Diario de Navarra, 2015d):

“Geroa Baiko hautagai Koldo Martinezek, euskararen aldeko “diskriminazio positiboa” defendatu zuen, “nafar guztien ondarea, bizi diren eremu linguistikoa gora behera”. Beren hizkuntza politika “diskriminazio positiboan oinarritzen” dela azaldu zuen “hizkuntza ahulenaren defentsa gisa”; “berdintasuna eta eskubide parekidetasuna bilatzen du eta askatasunean oinarriturik dago”. “Ez diogu ezer inposatuko inori ez eta galarazi ere, baizik eta administrazioan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatuko ditugu”, zehaztu zuen”.

Diario de Noticiasek tarte zabalagoa eskaini zion albisteari, aurretik jaso ditugun lerroei berriak gehituz, Europa Pressen bidez honek ere (Diario de Noticias, 2015b):

“Nafarroa osoak hizkuntza berezko zerbaiten modukoa hauteman dezan lan eginen dutela adierazi zuen, “ezer inposatu eta ezer debekatu gabe”.

“Koldo Martinezek euskararen aldeko “diskriminazio positiboa” defendatu zuen, “bizi diren eremu linguistikoa gora behera, nafar guztien ondarea” dena. Beren hizkuntza politika “diskriminazio positiboan oinarritzen” dela azaldu zuen “hizkuntza ahulenaren defentsa gisa”; “berdintasuna eta eskubide parekidetasuna bilatzen du eta askatasunean oinarriturik dago”. “Ez diogu ezer inposatuko inori ez eta galarazi ere, baizik eta administrazioan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatuko ditugu”, zehaztu zuen”. Hautagaiak, “zeharkako politikaren, hau da, gaia administrazio publikoko departamentu guztien kezka izatearen” alde egiteaz gain, “euskara nafar guztien ondare” dela “(...) sentitzen duten identitatea bat ala bestea izan”.

“Bestalde, Martinezek “foru Administrazioa, euskara beste atzerriko hizkuntza batzuekin kontrajarriz, hizkuntza eta identitate eztabaida faltsu bat elikatzen tematu” dela kritikatu zuen. “Foru administrazioa urte hauetan guztietan euskararendako laguntzak murrizten tematu da, are bertan behera uzten euskararendako laguntzetariko batzuk erabat, guztiz euskararen aurkakoa den komunikazio politika egiten, eta hau onartezina da, edo demokratizatik gutxi duena edo batere demokratikoa ez dena”, gaitzetsi zuen.

“Bere aldetik, Maria Solanak adierazi zuen “mentalitate aldaketa premiazkoa” dela, “nafar hiritargoak bere osotasunean euskara berezko zerbait dela uler dezan eta onarpen bat egon dadin”. “Euskararenganako harrotasuna berreskuratzea funtsezkoa da, euskara aberastasun gisa ulertzearen harrotasuna”, defendatu zuen”.

Egun bat beranduago, maiatzaren 16an jaso, Alberto Pradillak elkarrizketa egin zion Geroa Baiko presidentegaiari, eta aldaketarik balego lehen 100 egunetan zer eginen litzatekeen galdetu zionean hauxe erantzun zion Barkosek (Pradilla, 2015b):

“(...) Gainera, pendiente daude hizkuntza eskubideen zonifikazioaren erreforma, erreforma fiskala, edo Osasunaren zergaren inguruan foru Ogasunak izan behar duen betebeharraren inguruko hainbat lege aztertzea, adibidez”.

Alberto Pradillari berari, egun berean, Iruñeko alkategaiak ETBn eginiko eztabaidari buruz eginiko kronika argitaratu zitzaion, bertan hauxe zetorrelarik (Pradilla, 2015a):

“Gomezek, (...) argudioak gehitzen zituen esanez adibidez nolako “iseka” den euskaldunendako sinetsi behar izatea “25 de noviembre Paseoa” kale batendako izendapen onargarria izan daitekeela”.

Geroa Baik bere hauteskundeko mitin nagusia larunbat horretan egin zuen eta hurrengo egunetako egunkarietan hainbat albiste irakurri ahal izan ziren. Albiste hauetatik hiruk zekarten euskararekin loturiko informazioa. Esaterako Diario de Navarran Marcos Sanchezek hala jaso zuen (Sanchez, 2015):

“Euskara, bere “bandera”. (...) Abertzaleak (Barkosi buruz) sortu nahi duen gobernuaren “lehenetsitako helburua” “frentismotik ateratzea” izan behar zuela esan zuen, eta euskara “aberastasun elementu gisa ulertu beharrean gatazkarako arma gisa” ulertzen dutenak deitoratu zituen. (...) “Lurralde osoan euskaraz askatasunean jardun ahal izateko” konpromisoa hartu zuen. “Gure aurkariak banderak airean ibiltzeko atera ditzagun eskatzen digute. Hor dute ba, gure banderarik hoberena: euskara!”, egin zuen garrasi Geroa Bairen hautagaiak”.

Garan Martxelo Diazek zioen (Diaz, 2015c):

“Geroa Bairen hautagaiak euskararen defentsa sutsua egin zuen, lurralde osoan erabili ahal izatea defendatuko duela promes eginez. “Gure aurkariak

banderak airean ibiltzeko atera ditzagun eskatzen digute. Hor dute ba. Gure bandera euskara da”, aldarrikatu zuen”.

Elena Urabayenek eta A. Rodríguezek Diario de Noticiasen eginiko kronikan ekitaldian Gomezek esandakoei buruz idatzi zuten (Urabayen eta Rodriguez, 2015):

“(Gomezek) erreferentzia egin zion “euskarazko haur eskola eskatzen nazkatuta dagoen familia taldeari”, eta “geure seme-alabek pentsatzeko, hitz egiteko eta gozatzeko, berezko hizkuntzak ikasteko eskubidea” dugula adierazi zuen “baita mundura irekitzeko beste batzuk ikastekoa ere”. Ildo beretik, “euskara zaindu beharrean mespretxatzen duen” Iruñea kritikatu zuen”.

Sortzenek antolaturiko Euskal Eskola Berriaren ospakizun festaren harira, Diario de Noticiasen, Iván Pastorren eskutik, Uxue Barkosek Sarrigurenen eginiko adierazpenak jaso ziren, bestalde (Pastor, 2015):

“Uxue Barkosek baieztatu zuen festa hau “aldarrikapenerako unea” dela, “euskal eskola publikoaren egoerak ez duelako merezi duen erantzunik instituzioetatik”, eta “Sarriguren adibiderik argiena” dela ziurtatu zuen”.

Hona ekarriko ditugun hurrengo hiru albisteetan ere Itziar Gomezek esandakoak jasotzen dira. Lehenik eta behin, Diario de Navarrak argitaratutakoa dakargu. Geroa Baik Luna etxea euskal haur eskola bat izateko egiten zuen proposamenarekin lotutakoa da berau (Diario de Navarra, 2015e):

“(Gomezek) “UPN errealitatea ezkutatzeko bere egoskorkeriarekin, auzoka hizkuntza-ereduen plazen eskari erreala zein den ezagutzea ukatu du agintaldi osoan zehar”. (...) “Azterketa hark⁹ “Alde Zaharrarendako euskal haur eskola baten beharra egiaztatzen zuen”.

Diario de Noticiasen ere bazekarren informazio hori (Diario de Noticias, 2015c):

⁹ Hamar urte lehenago datuok ateratzeko azterketa bat egin omen zen eta berari egiten dio erreferentzia.

“Itziar Gomezek Mayaren “sektarismoa” kritikatu zuen, Alde Zaharreko euskara eskaria ez onartzeagatik.

“Mayak (...) familiei beren seme-alabak nahi duten hizkuntza-ereduan matrikulatzeko duten eskubidea ukatzen die”. Zentzu horretan, gogoratu zuen egungo haur eskoletako 1134 plazetatik 164 baino ez direla euskaraz, %15 baino gutxiago, “familiek egindako eskariak baino askoz txikiagoa” den ehunekoa, ziurtatu zuen Gomezek”.

Diario de Noticiasen, Europa Pressen bidez, Gomezek Iruñeko euskararen ordenantzaren harira ari zelarik esandakoak jaso ziren (Diario de Noticias, 2015d):

“Ulertezinak eta justifikaezinak dira hiri honetako hizkuntza paisaiatik euskal hizkuntza ezkutatzeke UPNren eta bere alkatearen ahaleginak”, kritikatu zuen, eta bere helburua elebitasun “orekatua” lortzea dela gaineratu zuen”.

Egunkari berekoa da azken aipamena. Geroa Bairen kanpaina bukaerako ekitaldiaren inguruko kronikan, zera irakur zitekeen (Diario de Noticias, 2015e):

“(Barkosek) Zentzu honetan, nafar gizarteak “gizarte plurala eta eleanitza izatearen harrotasuna berreskuratu behar du, eta etorkizuna ilusioz hartu daitekeela konbentzitu”.

4.2.4. EH Bilduren hauteskunde kanpaina prentsan

Lehenik eta behin ekar dezagun Diario de Navarraren errondan Adolfo Araizek erantzundakoa (Diario de Navarra, 2015b):

“Zonifikazioa aldatuko dugu eskubideak ukatzen dituelako”. “Egungo euskararen legea ezeztatu nahi dugu Nafarroa osoan euskaraz bizi ahal izateko eskubidea bermatuko duen euskararen lege berri bat onartzeko. Egungo zonifikazioak legearen injustizia agerian uzten du, hainbat eskubide eman ez diren eremu batzuetan bizi diren nafarrei, beste eremu batzuetan bizi direnei eskubide horiek ukatzen dizkien bitartean. Zonaldeek ez dute

eskubiderik, pertsonak bai. Euskaraz bizi nahi duena euskaraz bizi ahal izatea, administrazioarekin euskaraz komunikatu edo Nafarroako edozein eremutan euskara ikastea bermatu nahi dugu”.

Gainerakoan, EH Bilduren kanpainan aztergaiarekin loturiko sei albiste argitaratu ziren. Hauetatik hiru koalizioak Anaitasunan eginiko ekitaldi nagusiaren ingurukoak dira. Adibidez, Diario de Navarran, Beatriz Arnedok, hauxe idatzi zuen (Arnedo, 2015b):

“Hautagaia “Adolfo lehendakari” garrasiekin hartu zuten eszenatokian, eta honek egun aldaketa “inoiz baino errealagoa” dela esan zuen, “zonifikazioa” gaindituz euskara defendatzen duten familiei, “isiltzen ez den eta Audientzia Nazionalaren atxiloketa eta mehatxuen gainetik gelditzen ez den” gazteriari eta murrizketei, lan erregulazio txostenei zein kaleratzeei aurre egiten dieten langileei eskerrak”.

Mitinaren kronika Alberto Pradillak egin zuen Gararako eta Araizek eta Asironen esandakoei buruz hauxe irakurri ahal izan zen (Pradilla, 2015c):

“Araizek aldaketa anitzerako lerro nagusiak zehaztu zituen. Lehenengoa, “alfonbrak jasotzea” ustelkeria eta diru-xahuketa kasu guztien egia ezagutzeko. Halaber, austeritate politikek eta murrizketek mehatxatutako eskubide sozialak bermatzea. “Komuna dena ez da ez oparitzen ez saltzen ez pribatizatzen”, esan zuen. Eta honekin lotuta, Euskararen Foru Legeak ezartzen duen zonifikazioarekin amaitzea eta “euskaldun guztien eskubideak bermatzea”.

(Asiron) “UPNren kudeaketa Nafarroak sufritu duenaren adibide osoa da. Diru-xahuketa (...), bere onetik ateratako Udaltzaingoa, berezko ikurren pertsekuzioa, batez ere euskararena...”

Diario de Noticiasen Ibai Fernandez eta Javier Encinasek berriz, hauxe (Fernandez eta Encinas, 2015):

“(Araizek) hizkuntza zonifikazioaren bukaera defendatu zuen”

“Aldaketak, bere iritzian (Asiron) geldiezia denak, “balore berriak izanen dituen garai berri bat irekitzeko” balioko du, hala nola, “hiritarren aurreko sentsibilitatea, gardentasuna, ezkerreko politikak, eskubide berdinak guztiendako, feminismoa, eta gure berezko kulturarendako errespetua eta, behingoan, euskararendako errespetua””.

Diario de Navarrak, Navarra Televisionen gauzaturiko hautagaien eztabaidan Uxue Barkos eta Javier Esparzaren arteko ika-mika deskribatzeaz gain, Araizek hezkuntza alorrean esandakoak jaso zituen, Marcos Sanchez eta Iñigo Gonzalezen eskutik, maiatzaren 12an (Sanchez eta Gonzalez, 2015):

“Araizek (...) D eredua (euskara) Nafarroa osoan zabaltzearen alde eta PAI (ingeleza) “gelditzearen” alde egin zuen”

Albiste horretatik hamar egunera, maiatzaren 22an, Diario de Noticiasek, Iruñerako Asironetik egiten zuen euskararen inguruko proposamenaren berri eman zuen (Diario de Noticias, 2015f):

“EH Bilduren hautagaiak UPNri euskal hizkuntzaren erabilera Iruñean ito nahi izatea leporatu zion. (...) “Iruñean euskaraz” egitasmoari buruz aritu zen, zeinak “euskara, bere ezagutza eta erabilera sustatuz, hizkuntza ofizial gisa, gaztelaniaren baldintza berdinetan, berreskuratuko duen” plan bat garatzea izanen duen ardatz”.

Azkenik, aipa dezagun Berriak elkarrizketa egin ziola hausnarketa egunean Patxi Zabaletari, Joxerra Senarren eskutik. Politikari ezagun eta EH Bilduko kide denak zioen (Senar, 2015a):

“Urralbururen agintaldiko lege nagusietako bat gerora ondorio handiak ekarri dituen Euskararen Legea izan da. Zabaletaren arabera, min handia egin du lege horrek. Euskara lurralde osora zabaltzeko gakoa Iruñea hiriburua zuenez, “euskara ofiziala ez izateko asmatu zuten Foru hobekuntzan ez dagoen eremu mistoa. Asmaketa hori izugarri kaltegarria izan da”. Izan ere, “Iruñean libre balitz euskara, Nafarroa osoan litzateke libre. Eremu mistoa asmatu zuten, eta euskaldun batzuek amore eman zuten horretan, itsumen eta ezjakintasun handiz, kapitala ez zedin eremu

euskalduna izan. Eta horrekin sortu zuten konponduko ez den arazo bat eremuak desagertzen ez diren arte”.

4.2.5. Podemos-Ahal Duguren hauteskunde kanpaina prentsan

Podemos–Ahal Duguri buruz ere, gainerako alderdi nagusiei buruz bezala, albiste anitz argitaratu zen kanpainen zehar, eta hauetatik hirutan aipatu ziren gure aztergaiarekin loturikoak.

Horietaz gain, hauxe erantzun zion Laura Perezek Diario de Navarrari (Diario de Navarra, 2015b):

“Ezagutza mugatzen du. Ez diogu eutsiko”. “Ez genioke egun Nafarroan ematen den euskararen zonifikazioari eutsiko gure hiritargoaren hizkuntza eskubideak urratzen dituelako eta hizkuntza baten ezagutza mugatzeko ahalegin zakarra delako, guztion ondarea dena, oroitezinezko garaietatik transmitituta datorkiguna eta berau babesteko eta gure lurreko beste edozein ondare kultural bezala mantentzeko ardura duguna”.

Batetik, Joxerra Senarrek Laura Perezi eginiko elkarrizketan hauxe irakurri ahal izan genuen (Senar, 2015b):

“Nafar guztiok eduki beharko genituzke eskubide berak. Ezin daitezke zonifikazioak egin. Planifikazio egoki baten bitartez egin daiteke nafar guztiei administraziora euskaraz jotzeko aukera izatea, eta, eskaintzaren arabera, aukera hori izango da handiagoa edo txikiagoa. Guztioi eskaini behar zaigu euskaraz ikasteko eskola publikoa izatea. Beraz nahi dugu euskara normalizatu eta hizkuntza politiko egoki bat egin gure ondarea delako”.

Bestetik, Sortzenen jaian Laura Perezek eginiko adierazpenak jaso zituen Ivan Pastorrek Diario de Noticiasen (Pastor, 2015):

“Laura Perezek (...) Sortzenen aldarrikapenak babestu zituen eta “eskola publiko euskaldunaren aldeko apustua, nafar hiritar guztiei, bizi diren lekuan

bizi direla, eskubide hau aitortzen dienaren alde” egiten dutela baieztatu zuen, eta ziurtatu “modurik onena gurasoei bermatzeko beren seme-alaben hezkuntza aukeratzeko eskubidea, sare publiko euskalduna eskaintzea dela”.

Eta azkenerako utzi dut guztietan eztabaidagarriena. Diario de Navarrak, Iñigo Gonzalezen eskutik, Podemos-Ahal Duguren hauteskunde programaren ustezko bertsio zahar bat aipatu eta erreportaje bat argitaratu zuen. Prentsa artikulua horretan (Gonzalez, 2015a) hauxe irakur zitekeen lan honen aztergaiari dagokionez:

“Zirriborro hark (...) “Administrazioa euskalduntzearen” aldeko apustua egiten zuen. Gaur hori guztia desagertu egin da. (...) Hizkera da aldatu dena.

“(...) ETB hartzea normalizatzea eskatzen zuen. Testua “mugakide diren erkidegoekin elkarlan hitzarmenak eta mugakide diren lurraldeen ikus-entzunezko kateen hartzea normalizatzea” izatera pasa da.

“Ez du euskalduntzeari buruz hitz egiten. Podemos Nafarroaren euskarari buruzko ideiek ere aurpegi garbitze bat bizi izan dute. Duela lau aste “UPNren gobernuek euskara traba eta beren jabeendako kontrako elementutzat” zeukatela esaten zen. Egun ez da horrelakorik, “UPNren gobernuek hainbesteko ahaleginarekin sustatu duten euskara kanpo inposaketa bat deneko ideia gainditu” behar dela eskatzen dute. Ez da hitz egiten “administrazioa euskalduntzeaz”, baizik eta bertan “euskararen erabilera sustatzeaz”. Eta nahiz eta sortu nahi zuten euskararen presidenteordetza desagertu eta hizkuntzarendako xedaturiko Nafarroako aurrekontuaren %1eko kontu-saila jadanik kopuru horietan ez jarri, Podemosek euskararen irakaskuntza Nafarroako ikastetxe publiko guztietara hedatzea eskatzen jarraitzen du, Gobernuaren komunikazio elektronikoa guztiak %100ean elebitan egin daitezela, praktika profesionalak euskaraz egin ahal izatea errazten duten enpresei abantaila fiskalak ematea proposatzen du, eta produktuak euskaraz etiketatzearen, eta, Q

edo ISO kalitate ziurtagiriak enpresei ematerako garaian euskararen ezagutza baloratzearen alde egiten du”.

4.2.6. PSN – PSO Eren hauteskunde kanpaina prentsan

PSNren hauteskunde kanpainako albisteen artean ez dugu aurkitu euskara, zonifikazioa, Euskararen Legea, berezko hizkuntza... edo antzekorik dakarren albisterik. Parlamentuan sartu diren alderdien artean bakarra da. Hortaz, Diario de Navarrak egindako galderari Maria Chivitek emandako erantzuna jasoko dugu hemen (Diario de Navarra, 2015b):

*“Bilakaerara egokitzen gara, baina orain ez da beharrezkoa aldaketa bat”.
“Gutxieneko eskaria dagoen lekuetan euskara ikasteko aukera ematen duen legearen azken aldaketa adibide garbia da esateko gizartearen bilakaerara egokitzen garela, baina uste dut oraintxe bertan ez dela beharrezkoa Nafarroan euskararen zonifikazioa aldatzea”.*

4.2.7. PPNren hauteskunde kanpaina prentsan

“Egungo euskararen zonifikazioari eutsiko zenioke?” galderari, hala erantzun zion Ana Beltranek, Diario de Navarrak jaso moduan (Diario de Navarra, 2015b):

*“Egungo zonifikazioak funtzionatzen du eta ez da beharrezkoa aldatzea”.
“Bai, beti esan dugu Foru Hobekuntzak ezarritako eta Euskararen Legeak garatutako zonifikazioak ongi funtzionatu duela azken 30 urteetan, eta ez dago aldatu beharrik inolaz ere, ezta, noski, hezkuntzaren alorrean ere, duela gutxi Parlamentuan egin zena, hain zuzen ere. Euskara Nafarroako iparraldean hitz egiten da, eremu euskalduna deitzen zaion horretan, eta han izan behar da soilik koofiziala”.*

Bestela, PPNri buruzko bost egunkari artikulutan aurkitu ditut bilatutako kontzeptuak. Bost hauetatik lau administrazio publikoan euskara eskakizuna

kentzearen alde alderdiak egindako proposamenari buruzkoak dira. Lehenengoak Diario de Navarrako bat (Diario de Navarra, 2015f) eta Diario de Noticiaseko beste bat (Diario de Noticias, 2015g) izan ziren. Bietan informazio bera zetorrelarik, hitzez hitz:

“PPk, administrazio “eraginkor eta justuaren” aldeko bere apustuaren baitan, Administrazio publikoko lanpostuetara sarbidea izateko euskararen ezagutza meritu gisa eskatzeko baldintza desagertzea proposatzen du. Ana Beltran hautagaiak adierazi zuen “Administrazioan profesional onenek” egon behar dutela eta “ez euskara jakiteagatik””.

Iruñeko hautagai Pablo Zalbari gai horren inguruko galdera egin zion maiatzaren 17an Diario de Noticiasen argitaratu zen elkarrizketan Kepa Garciak, eta erantzun hauek jaso (Garcia, 2015):

“Ana Beltranek esan duena esan du. Hiritar gisa nahiago dut mediku on batek artatu nazan euskara dakien batek baino. Nire iritzia da. Uste dut euskara gehiegi politizatu dugula. Nire amonak hitz egiten zuen. Ez zion inork galarazi ez derrigortu ere. Nire ustez gehiegi politizatzen ari den normalizazio bat egon da. PPk ez du ezer euskararen kontra, ez dugu inoiz legerik egin euskararen kontra, baina ez dugu uste meritu bat izan behar duenik gure funtzionarioen gaitasun profesionalen kaltera, ezta uste ere bere erabilera tradiziozkoa den lekuetatik inoiz hitz egin ez den zonaldeetara hedatu behar denik”.

“Iruñeko Udaletxean funtzionario onenak izatea gustatuko litzaidake eta norbaitek hemen inbertitu nahiko balu eta soilik ingelera erabiliko balu, egin ahal izatea ulertzen diotelako”.

Bi egunetara, egunkari berak Ana Beltrani berari eginiko elkarrizketa argitaratu zuen. Kasu honetan Ibai Fernandez zen kazetaria eta gaiaren inguruan galderak eginda, PPko hautagaiak hauxe erantzun zuen (Fernandez, 2015):

“(…) Lanpostu publiko batera sarbidea izateko euskara jakiteak ezin du puntuatu. Zer nahi dugu, euskara dakien medikua ala zirujaurik onena? Justiziazko proposamena iruditzen zait. (...) Ez noa euskararen kontra.

Babestu beharreko ondare kulturala iruditzen zait, baina ezin du saritu ezta baldintza positiboa izan ere plaza bat lortzerako orduan. (...) Gaztelania jakitearekin nahikoa da. (...) Gaztelania nafarren %100ak hitz egiten du. Zerorrek ere bai. Horrekin nahikoa da”.

PPrekin amai dezadan, Berriak hauteskunde kanpainaren azken egunean jasotakoa dakart (Berria, 2015c):

“PPko Nafarroako presidentegai Ana Beltranek modu bitxian lotu zituen atzo euskara eta LABek administrazio publikoko hauteskundeetan izandako garaipena. Haren hitzetan, “administrazioan sartzeko hain da altua euskarak duen balioa, LABek irabazi baititu bozak”. Hala, “euskara meritu gisa desagertu” dadila eskatu zuen”.

4.2.8. Izquierda-Ezkerraren hauteskunde kanpaina prentsan

Diario de Navarraren errondarekin amaitzeko haxe erantzun zuen Jose Miguel Nuinek (Diario de Navarra, 2015b):

“Aldaketarik ez, baina euskara hizkuntza ofiziala”. “Uste dugu euskararen lege berriarekin, Izquierda-Ezkerraren ekimenez legegintzaldi honetan onartuarekin, Nafarroako bizikidetzarako oinarritzko helburu bat lortzera goazela. Familia orok, Nafarroa osoan, aukeratu ahal izatea beren seme-alabak zein hizkuntza-eredutan matrikulatuko dituzten hezkuntza publikoan. Horrela hamarkadak iraun dituen diskriminazioa bukatuko da. Euskara eta gaztelaniaren koofizialtasunaren aldekoak gara, Nafarroako errealitate soziolinguistikora egokituta”.

Erantzun horrez gain, zazpi egunkari artikulutan aurkitu dut I-Eren eta euskararen arteko lotura, kanpainan zehar. Egun ezberdinetan jasotakoak dira gehienak, baina batean eta bestean irakurritakoak Diario de Navarraren galderaren harira esandakoen oso antzekoak edo berdinak dira, ikusiko denez.

Diario de Noticiasek, Juan Angel Monrealek eginiko kronikaren bidez, zera jaso zuen, Izquierda-Ezkerrak Labriten buruturiko ekitaldi nagusiaren harira (Monreal, 2015b):

“(Nuinek) Egun lege diren hainbat ekimen parlamentario ekarri zuen gogora, hala nola, “memoria historiko eta demokratikoari eta biolentzia guztien biktimei” dagokiena. “Eta –jarraitu zuen- murrizketak geldiarazi dituen edo Nafarroako familia guztiei posible egiten diena aukeratzea beren seme-alabek zein hizkuntzan ikasiko duten”.

Egun berean, maiatzaren 15ean, eta ekitaldi berari buruzko artikuluan, Diario de Navarra Beatriz Arnedok zioen (Arnedo, 2015c):

“(Nuinek) I-E atzean izan dituzten legeak azaldu zituen, besteak beste Memoria Historikoaren legea, etxegabetzeak gelditzea nahi zuena (...), Nafarroa osoan ikastetxe publiko batean euskara ikastea ahalbidetuko duena (...).”

Ondorengo egunean Diario de Navarrak, Iñigo Gonzalezen eskutik, Jose Miguel Nuini egindako elkarrizketa argitaratu zuen. Hauexek izan ziren Nuinen (interesatzen zaizkigun) erantzunak (Gonzalez, 2015b):

“(...) Gure ekimenez gauza garrantzitsuak onartu dira: etxegabetzeen legea (...), landa osasunean murrizketak geldiarazteko foru-legea, Memoria Historikoarena, Euskararen Foru Legearen erreforma”.

“(Euskararen Foru Legearen erreformari buruz) Familiek aukeratzeko duten eskubidea da. Nafarroa osoan eta sare publikoan. Nafarroa anitza da, bi berezko hizkuntza ditu, eta aukera eman nahi dugu, ez inposaketarik egin”.

Diario de Noticiasen egun bat beranduago, maiatzaren 17an, egin zioten elkarrizketa; Juan Angel Monrealek I-Eko hautagaiari, eta bertan ere antzekoa errepikatu zuen (Monreal, 2015c):

“Nafarroan etxegabetzeen lege bat badago (...) Izquierda-Ezkerraren bultzadagatik da. Eta berdina gertatzen da Memoria Historikoaren

legearekin, beste biktimen legearekin (...), edo euskararen legearekin, zeinak familiei sare publikoan eredia aukeratzeko eskubidea bermatzen dien”.

Sortzenen jaiari Txema Mauleonek egindako adierazpenak jaso zituen Ivan Pastorrek Diario de Noticiasen (Pastor, 2015):

“Txema Mauleonek “legegintzaldi hau esanguratsua izan dela” adierazi zuen “Nafarroa osoan familiek euskarazko eredu publikoa aukeratu ahal izateko lege proposamena onartu baita”.

Txema Mauleonek esandakoen gaineko albistea zekarren noticias taldeko egunkariak, maiatzaren 20an (Diario de Noticias, 2015h):

“Txema Mauleonek autogobernu, bizikidetzaren eta hobekuntza demokratikoaren inguruko proposamen nagusiak zerrendatu zituen. (...) Nafarroako identitate eta hizkuntza aniztasunaren errespetu eta aitortzan aurrera egitea”.


Bukatzeko, hausnarketa egunean, Diario de Noticiasek, EFE agentziaren eskutik, I-Eren kanpaina itxierako ekitaldiari buruzko kronikan ere hauxe jaso zuen (Diario de Noticias, 2015i):

“(I-Ek) Euskararen Legearen moduko gai garrantzitsuak aurrera ateratzeko erakutsi duten gaitasuna gogoratu zuen.


“Lortutako “aurrerapen handiek”, Euskararen Legea edo beste biktimena eta beste sozialagoak, etxegabetzeena kasu, “I-Eren bultzada politiko erabakiorra izan dute””.

4.3. HAUTESKUNDE EMAITZAK (Diario de Noticias, 2015j)


4.3.1. Hauteskunde emaitza orokorrak. Parlamentuaren osaketa




4.3.2. Hauteskunde emaitzak eremu euskaldunean. Parlamentuaren osaketaren simulazioa



4.3.3. Hauteskunde emaitzak eremu mistoan. Parlamentuaren osaketaren simulazioa



4.3.4. Hauteskunde emaitzak eremu ez euskaldunean. Parlamentuaren osaketaren simulazioa



4.4. NAFARROAKO GOBERNURAKO PROGRAMA AKORDIOA

Uztailaren 1ean argitaratu zen Geroa Baik, EH Bilduk, Podemos–Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak adostutako 2015-2019 legegintzaldiko Gobernurako programa (Geroa Bai; EH Bildu; Podemos; I-E, 2015). Euskararen gaia, hizkuntza politikari eskainitako azpiatalean lantzeaz gain, 2., 6., 7. eta 8. gai blokeetan ere garatzen da, batzuetan adierazpenen bidez, beste batzuetan hartutako akordioak azalduz.

Alderdien programekin egin dudan moduan, lehenik eta behin hizkuntza politikaren ataletik kanpo eta euskararekin harremanetan dauden puntuak laburbilduko ditut.

Bigarren programa gai blokea zerbitzu publikoei eta herritarren erreskateari dagokiena da. Bloke horretako lehen azpiatala gizarte politikei buruzkoa da eta lau alderdiek adostutako testuak dio gizarte zerbitzuak pertsona guztiei eman behar zaizkiela, hauen *jatorri, genero, etnia, adin, ideologia, hizkuntza, egoera administratiboa, eta abar* edozein izanda ere.

Hezkuntzarena da bloke horretako bigarren azpiatala. Arlo honetako politiken oinarrien zerrendan, *Nafarroako berezko bi hizkuntzen, gaztelaniaren eta euskararen, ezagutzatik abiatuta eleaniztasuna sustatu* behar dela eta *hizkuntza murgiltzearen eta euskara irakaskuntzan hedatzearen aldeko apustua* agertzen dira.

Adierazpen hauekin lotuta zazpi akordiotara iritsi dira lau alderdiak. 2015eko otsailaren 24an onartutako Euskararen Foru Legearen aldaketa martxan jarri eta D ereduaren eskaintza eremu ez euskaldunean egitea da asmoetako bat, eta horren eraginpean egon daitezkeen ikastolendako prozedura berezi bat diseinatzea beste bat. Ikastolei buruz gehitzen da euren egungo egoera aztertu eta etorkizuneko baloratu behar dela, hamarkadetan egin duten lana kontuan hartuz. Halaber, 2015-2016 ikasturtetik aurrera eremu misto zein ez euskaldunean D ereduan matrikulatzen diren ikasleei garraio eta jantokirako laguntzak ematea ere adostu dute.

Haur eskolei dagokienez, hizkuntza eskaria kontuan hartzeko obligazioa, Lanbide Heziketa euskaraz egiteko eskaintza handitzea eta Nafarroako Unibertsitate Publikorako hizkuntza normalkuntzarako plan estrategiko bat diseinatzea ere jasotzen da.

Kulturarena da blokeko zortzigarren azpiatala, eta arlo honetako politikaren oinarrien artean berezko kultura, euskal kultura barne, aitortu, babestu eta sustatzeko neurriak hartu beharra dakar dokumentuak. Akordioetan batetik esaten da euskarazko kultur eskaintzarako sarbidea bermatzeko neurriak bultzatu behar direla eta, bestetik, liburutegietan batez ere euskarazko liburuaz gaindiko euskarriak eta funtsak handitu behar direla.

Seigarren blokea aniztasunaren, bizikidetzaren, bakearen eta biktimen ingurukoa da eta *Aniztasuna eta bizikidetzaren* izenburua duen bigarren azpiatalean adierazten da *Nafarroa anitz, ireki, euskaldun eta bi hizkuntzengatik harro* dagoena nahi dutela eta *Aldaketaren Gobernuak* nafarren hizkuntza eskubideen urraketa deitoratuko duela. Ildo beretik, hizkuntza identitate ezberdinen bizikidetzaren aldeko apustua berresten da.

Eta, hizkuntza politikarekin hasi baino lehen, bukatzeko, zazpigarren blokeko beharra dago. Bloke hau justizia, barne sail eta funtzio publikoarena da. Hain zuzen ere azken gai horri buruz, lehen azpiatalean, administrazio publikoko langileen profil linguistikoak definitu egin behar direla irakur daiteke.

4.4.1. Adostutako hizkuntza politika

Hizkuntza politikaren gaia bigarren blokeko hirugarren azpiatala da. Aurrenik, adierazpen orokorrak egiten dira eta gero adostua, hemeretzi puntu guztira, zerrendatzen.

Euskarak, Nafarroako berezko hizkuntza eta gutxitua denez, nafar herritarrak aberasteko berreskuratze prozesua behar du, adostasunera iritsi direnen ustez. Hizkuntza eskubideak bermatuko dituen eta hizkuntza normalkuntzan aurrerapenak nahi dituen hizkuntza politika berriak oinarrian

zeharkakotasuna, progresibotasuna, egoera soziolinguistiko ezberdinetara egokitzeko ahalmena, eraginkortasuna, parte-hartzea, babeserako araudi bat, euskararendako prestigioa, eta borondatezkoa izatea eta askatasuna, ditu. Politika publikoari begira, Administrazioarekin euskaraz komunikatu ahal izatea bermatzea Nafar Gobernuaren egitekoa dela ulertzen dute eta gizarte alorrean, estrategiko jotzen dira helduen euskalduntze-alfabetatzea eta euskarazko komunikabideak.

Hartutako konpromiso zehatzen artean, hemeretzi akordioetan, *herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen arau marko egokia garatzea* da lehen puntua eta bigarrena D eredia Nafarroa osoan eskaintzeari dagokiona da.

Departamentu guztiak eta Gobernuaren jarduna barne hartuko dituen zeharkakotasunerako Hizkuntza Politikarako organoa dagokion lekuan kokatzea, eta, parte-hartzea sustatzeko, Euskararen Kontseilua berritzea, organoekin loturan diren bi akordio dira. Eta Nafar Gobernuaren komunikazioari dagokionez, euskararen presentzia aspektu honetan bermatzea eta sentsibilizazioa, ezagutza eta erabilera sustatuko dituen komunikazio estrategia berria garatzea dakartza dokumentuak.

Euskararen egoeraren diagnostiko oso bat egin eta horren arabera Euskararen Kontseiluaren bidez Plan Estrategiko bat diseinatu behar dela dio zazpigarren akordioak. Diagnostikoekin jarraituz, eta hizkuntza eskubideak bermatze aldera, langileen hizkuntza ezagutzaren ingurukoa egin eta zirkuitu elebidunak martxan jarri behar direla esaten da.

Tokiko entitateekin elkarlana berreskuratu eta euskara zerbitzuen sarea, dagoen eskariaren arabera, zabaltzea da beste asmoetako bat.

Helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruz adierazten da 2015erako partida presaz eman behar dela, euskaltegien egonkortasunerako elkarlan hitzarmenak sinatu behar direla, eta jardun horretan diharduten zentro publikoek dagoen eskariari erantzun behar dietela.

Euskararen komunikabideen inguruan ere esaten da hauen finantzaketa berreskuratu eta hobetu behar dela, diru-laguntzak jasotzen dituzten komunikabideek beren programan euskaraz ehuneko jakin bat egin beharko

dutela eta nafar herritar guztiei euskarazko komunikabideetarako irispidea bermatzeko neurriak hartuko direla.

Administrazioaren kultura, kirol, aisi eta denbora libreko ekintzetan euskararen eskaintza sustatzea eta gizarte erakundeek egiten dituztenak babestea aurreikusten da. Baita alor sozioekonomikoan enpresetan euskara planak garatzeko laguntzak ematea ere.

Bestalde, euskararen erabilera eta ezagutza handia duten zonaldeen funtzio estrategikoa, batetik, eta bertan politika bereziak martxan jartzeko aukerak bestetik, aztertzea da beste nahietako bat.

Bukatzeko, besteak beste, Eusko Autonomi Erkidegoarekin, Euskal Erakunde Publikoarekin eta Euskaltzaindiarekin elkarlana normalizatu eta hobetzea espero da eta zerrendatzen diren akordio guztiek nahikoa finantzazio eta giza baliabide izanen dutelako konpromisoa hartzen dute dokumentuaren egileek.

4.4.2. Adostasunaren faltan garatzeko geratu diren gaiak

Lau alderdien artean adostutakoaz gain dokumentuko azken blokean, zortzigarrenean, adostasunera iristeke geratu diren gaiak ere zerrendatzen dira, zortzi guztira. Hauetatik bi euskararekin harremanetan daude.

Batetik, hezkuntzan, hizkuntza-eredu ezberdinen arteko elkarbizitzaren inguruan ez dira bat etorri lau alderdiak. Ezta, bestetik, hizkuntza politikan, Euskararen Lege Berri bat sortzeko ideian ere.

5. EZTABAIDA

2015-2019 legegintzaldian Nafarroako Gobernuak zein Hizkuntza Politika garatuko duen iragartzea ez litzateke hain zaila izan behar Gobernu Programa bat dugulako esku artean eta bertan euskararen inguruan zer egingen den esaten zaigulako. Dena den, adostutakoa nahiko zabala da eta aipatzen diren gaien artean zein lehentasun egon daitekeen, zein aukera dauden eta zein zailtasun egon daitezkeen azaldu nahi nuke hemen, Gobernu Programatik abiatu eta hauteskunde programak, kanpainak eta emaitzak kontuan hartuta. Asmoa ez da gerta daitekeenaren inguruko asmatu-ez asmatu jolas bat planteatzea, baizik eta datorren urteak aurreikustea euskalgintzan dabilzan erakundeek euren ondorioak atera ditzaten.

5.1. LEHENTASUNEZ JORRATUKO DIREN GAIAK

Nire ustez badira hiru gai hizkuntza politikaren kudeaketa antolatu aurretik eta Plan Estrategiko batean txertatu gabe, dagokionean, baina gobernuaren lehen urtea igaro baino lehen, landuko direnak.

Batetik, 4/2015 Foru Legea, otsailaren 24koa, eremu ez euskaldunean D ereduan ikasteko aukera emateko lege aldaketa izan zena, ziurrenean 2016-2017 ikasturtean errealitate bilakatuko da, eta horrela izan dadin, 2016ko otsailerako, matrikulazio kanpainak egiten direnerako, gogor jardun beharko du gobernuak antolaketa eta kudeaketa lanak ez baitira txikiak izanen. Gerta daiteke, ez baitakit nik zenbateko lana den, legearen garapena hurrengo ikasturterako, 2017-2018rako, uztea, baina Uxue Barkosek gobernuaren lehen ehun egunetan gai hau landuko zela esan zuenez (Pradilla, 2015b), nik uste dut 2016ko matrikulazio kanpainan, esan bezala, eskaintza egingen dela. Egitasmo hau Gobernu Programan azaldu da, eta ikusi dugunez, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu, PSN eta I-Eren hauteskunde programetan eta Gobernu Programa idatzi dutenen hauteskunde kanpainetan ere bai, bereziki I-Eren eta Geroa Baien eskutik.

Dena den, lege aldaketaren garapenean eztabaida piztuko dela aurreikus daiteke. PSN-PSOeri ez zitzaion hauteskunde kanpainen hizkuntza politikaren inguruko adierazpenik jaso ia, baina jaso zitzaion bakarrean D ereduko taldeak osatzeko “gutxieneko eskaria” egon behar dela aipatu zuen (Diario de Navarra, 2015b). UPNk bere hauteskunde programan “eredu uniformatzailetzat” hartu zuen euskarazko irakaskuntza eremu ez euskaldunera hedatu izana eta PPNk, Diario de Navarraren erronda-galderari erantzunez, argi esan zuen kontra zegoela (Diario de Navarra, 2015b). Ez dira kontu berriak azken hauek, lege aldaketaren kontra egin baitzuten aurreko legegintzaldian; ezta PSN-PSOeren jarrera ere, legea onartu zen momentu berean gelditu baitzen taldeen ikasle ratioa zenbatekoa izan behar zen galdera zehazteke. Nire ustez, gai honekin PSN-PSOEk izanen duen jarrerak erakutsiko digu legegintzaldi osoan, hizkuntza politikaren inguruan, oposizioa zein modutan garatuko duen. Kontuan hartu behar da, gainera, UPN-PPN-PSNk eremu ez euskalduntzat hartutakoan indar handia dutela, simulatutako parlamentuan berrogeita hamar eserlekuatik hogeita hamabi.

Euskarazko irakaskuntza eremu ez euskaldunera hedatzearekin batera, bestalde, ikastolekin lehen hartu-emanak eta agian hitzarmenen bat ere egin nahi izanen dela iruditzen zait. Geroa Bai (Geroa Bai, 2015) eta EH Bilduren (EH Bildu, 2015) asmoa da hau batez ere, eta Nafarroa Oinez urrian izanen dela aintzat hartuta, gai honekikoak zer edo zer aurreratuko dira, agian, egun horretan bertan.

Bestetik, lehentasunez jorratuko diren gaiekin jarraituz, helduen euskalduntze-alfabetatze lanetan ari diren euskaltegiekin hitzarmenen bat egin nahi izanen da dagozkien kontu-sailen ingurukoak eta aurrera begirakoak argitzeko. Nire ustez, 2015-2016 ikasturtearen hasiera gainean dugula eta, 2016 urterako adostasunera iritsi nahi izanen da. Gobernu Programa osatu dutenen aipagai izan da euren programetan eta ez dirudi gai honek oposizio handiegirik izanen duenik, besteak beste, orain arte eman ez zaiena UPNren gobernuko aurrekontuetan bazegokielako.

Eta bukatzeko, iruditzen zait, irrati eta telebisten lizentziak banatzen diren hurrengo aldian Euskalerrria irratiari emanen zaiola berea azkenean eta ETB digitalean ikusteko kudeaketak nahiko goiz egiten hasiko direla. Asmo zehatz hauek Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerrarenak izan dira eta,

ETBren auzian akaso bai, baina ez dirudi oposizioak hautsak erabakietan atzera egiteko adina harrotuko dituenik.

5.2. HIZKUNTZA POLITIKAREN KUDEAKETARAKO OINARRIAK FINKATZEA

Lehentasunez eta plan egituratuei itxaron gabe aurreko azpiatalean aipaturiko gaiak landu bitartean, iruditzen zait Hizkuntza Politikaren egiturazko eta kudeaketarako oinarriak jartzen hasiko direla uda bueltatik hasita. Hizkuntza Politikarako organoa eta Euskararen Kontseilu berria, euskalgintzan dabilzan eragileei irekia, nahiko goiz ezagutuko ditugula esanen nuke. Euskararen Kontseiluak Plan Estrategiko bat definituko du, ziurrenik, denbora gehiago hartuta, diagnostikoak eta abarrak aipatzen baitira, eta legegintzaldiaren bigarren zatirako edo, hurrengo urteetan aplikatuko den bide-orri garbi bat izanen dugu. Hori da nire inpresioa, gaia Gobernu Programa osatu duten lau alderdien hauteskunde programetan agertzen baitzen oso modu antzekoan; ematen du adostasun handia dagoela prozedura honekiko.

Halaber, aurrekoarekin batera, ziurrenik Euskal Autonomi Erkidegoarekin, Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Euskaltzaindiarekin lehen harremanak goiz hasiko dira.

Nire ustez, adostutako gaiak asko izan direlakoan, Plan Estrategiko horrek jasoko du Gobernu Programan idatziriko gaien gehiengoa eta, beharbada, ekaina-uztaila hasieran hitz egin ez, baina alderdien programetan agertzen ziren beste gai batzuk ere bai. Plan Estrategikoan beharbada modu berezian landuko dira Lanbide Heziketa eta Haur Eskolak euskaraz eskaintzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Plan Estrategikoa (hau agian aparte ere lehenagotik lantzen hasiko dira), euskarazko kultur eskaintza sustatzea eta Administrazioarekin euskarazko harremanak ahalbidetzea, programetan eta kanpainan hauek izan baitira, orain arte jorratu ditugunez gain, gehien azaldu diren gaiak. Era berean, pentsatzekoa da, plan horretan bertan sartuko direla alor sozioekonomikoari dagozkion asmoak eta arnaguneen ingurukoak.

Komunikazio estrategia berriari dagokionez, praktikan, lehen egunetik ia, berria dela irudituko zaigu herritarroi, berria izateko ez baita aurreko gobernuekin alderatuta askorik egin behar. Hala ere, gai honek ere garrantzi berezia izanen du eta gaiak jorratu ahala definitzen joanen da edo nahiko goiz hasiko da gobernu berria beratu lantzen.

5.3. MARKO JURIDIKOA

Hizkuntza eskubideak bermatzeko marko juridikoa sortzeko asmoa dakar Gobernu Programak eta, aldiz, euskararen lege berri bat sortzeko ideian ez dira bat etorri lau alderdiak. Gai honetan argitasun falta dagoela iruditzen zait eta, aldi berean, argitasun falta hori hauteskunde programetan eta kanpainetan ere egon dela esanen nuke.

Nire ustez zentrala den gai honek, batetik, kanpaina zehar hizkuntza politikarekin loturiko albisteetan behar adina presentzia ez du izan. Diario de Navarrak egindako galdera-errondan emandako erantzunez gain, eta D eredia zonifikazioa gaindituz eremu ez euskaldunera zabaltzeko asmoarekin loturiko adierazpenak kenduta, Gobernu Programa adostu dutenen aldetik ez da gaia plazaratu, EH Bildu aparte utzita. Gainera, zonifikazioa mantenduko luketen ala ez galdetuta, Diario de Navarrak berak, adibidez, I-Ek mantenduko lukeela ulertu zuen (Diario de Navarra, 2015b). Izan ere, Nuinek aldaketarik ez zutela nahi eta, batera, euskara hizkuntza ofiziala izatea nahi zutela erantzun zuen; era berean, koofizialtasuna errealitate soziolinguistikora egokitu behar zela esanez. I-Eren *koofizialtasun errealitate soziolinguistikora egokitua*¹⁰, beren programan ere bazetorren, baina, baita Euskararen Foru Legea erreformatzeko ideia ere.

Podemosen programan argi esaten da epe motzera begira euskararen lege berri bat sortzeko pausuak eman behar direla. Alabaina, kanpaina Perezi zuzenean galdetu dioten arte, ematen du alderdiak ez duela, ez soilik markoarekin loturikorik, atera, baizik eta ezta hizkuntza politikarekin loturiko besterik ere

¹⁰ Nire ustez, koofizialtasuna ez da errealitate soziolinguistikoetara egokitu behar, hori eta zonifikazioa oso hurbil ikusten ditut. Hizkuntza Politika, jarduna, planak eta abar, dira egoera bakoitzera egokitu behar direnak.

(Sortzenen Jaian egindako adierazpenak kontuan hartzen ez baditugu). Honi alderdiaren ustezko programaren lehen bertsioetik bertsio ofizialera egindako aldaketak gehitzen badizkiogu (Gonzalez, 2015a), ematen duena da euskararen gaiarekin zalantza batzuk izan dituztela.

Eta Geroa Baik ez programan ez kanpainan ez du lege berririk iragarri. Zonifikazioa gainditu behar dela bai, baina horretarako Euskararen Foru Legea, oraingoan, gainditu behar denik ez du esan. *Oraingoan* diot, bere programan badiolako, epe ertain-luzera, hizkuntza eskubideak murrizten dituzten arau guztiak erreformatu behar direla. Euskararen lege berri bat sortzearen alde egon daiteke alderdia, beharbada, baina gaur gaurkoz beste lehentasun batzuk daude bere ustetan.

Mezu nahasgarri xamarrek edo mezu gabezia izan dira Gobernu Programa argitaratu bitartean herritarrok jaso ditugunak. Honetan EH Bildurekin salbuespena egin beharra dago, bai programan eta bai kanpainan lege berri baten alde dagoela entzun eta irakurri baitiogu koalizioari. Egoera honetan, gaiarekin oposizioak izanen duen kontrakotasuna, ziurrenik gogorra UPN eta PPNren kasuetan, aintzat hartuta, ez da harritzekoa euskararen lege berri bat osatzeko ideia Gobernu Programaren oraingo asmoetan ez sartu eta zehazteke daudenen artean utzi izana.

Dena den, markoari buruz, eta Euskararen Foru Legea alde batera utzita, beste aukeraren bat lantzeko asmoa egon daitekeela iruditzen zait. Euskararen Foru Legea gainditzeko lehenik eta behin Foru Hobekuntza aldatu behar da eta horretan ematen du bat etor daitezkeela lau alderdiak. Geroa Baik Foru Hobekuntza aipatzen du programan, esateko euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofizial izendatu behar dela eta I-Ek ere, gai honekiko, Foru Hobekuntzaren erreforma nahi du. Podemosek eta EH Bilduk euskararen lege berri bat aldarrikatzen dutenez, horretarako eman behar den lehen pausua ere emanen dute.

Foru Hobekuntzaren 9. artikulua aldatzen hasteko, gainera, badago aspektu bat PPNk ezik alderdi guztiek aitortzen dutena eta aipaturiko artikuluan ez

dagoena: UPNk¹¹, Geroa Baik, EH Bilduk, Podemos-Ahal Duguk, PSNk¹² eta I-Ek euskara berezko hizkuntza dela esaten dute. Foru Hobekuntzan egindako ez-aipatzea, Alliren usteari jarraituz, identitate eztabaidetatik ihes egiteko saioa bazen, 2015ean esan daiteke 1982rekiko aurrerapen hori egin dela, eta berau, 1982ko parlamentuaren euskara ofizial izendatzeko aldarrikapenarekin batera, izan daiteke giltza, edo giltzetako bat, Foru Hobekuntzaren erreforma egiten hasteko.

Beraz, nire ustez, Euskararen Foru Legea ez da 2015-2019 legegintzaldian gaudituko, baina Foru Hobekuntzaren 9. artikulua aldatu eta euskara Nafarroa osoan ofizial izendatzeko eztabaida, agian, sor daiteke. 2016ko abenduan Euskararen Foru Legeak hogeita hamar urte eginen ditu eta data horretatik abiatuta, beharbada, gaia mahai gaineratuko da. Hala ere, uste dut, Foru Hobekuntzaren erreformari heltzekotan legegintzaldiaren azkeneko partean helduko zaiola.

Bukatzeko, argi dago 29/2003 Foru Dekretua eta beste hainbat dekretu eta ebazpen aldatzeko prozesua hasiko dela legegintzaldi honetan. Marko juridikoaren inguruko gainerako erabaki handiekin hasi aurretik hizkuntza eskubideen alorrean aurrerapenak egiteko bien bitarteko oinarri izanen dira aldaketa horiek.

¹¹ Hezkuntzarekin lotuta, bere programan dio euskara eta gaztelania berezko hizkuntzak direla.

¹² PSNk programan euskara berezko kultura eta identitate ikurretako bat dela dio.

6. AZTERTUTAKO TESTUAK

6.1. HAUTESKUNDE PROGRAMAK

UPN. *Compromisos con Navarra 2015-2019. Javier Esparza candidato a presidente de Navarra*, Iruñea, 2015.

GEROA BAI. *La Navarra de todos/as / Guztion Nafarroa. Oinarri Politikoak 2015*, Iruñea, 2015.

EH BILDU. *Nafarrok garaile jaha! Hauteskunde programa. Nafarroako Parlamentua 2015*, Iruñea, 2015.

PODEMOS-AHAL DUGU. *El programa de Navarra*, Iruñea, 2015.

PSN-PSOE. *Nuestra propuesta para regenerar Navarra*, Iruñea, 2015.

PPN. *Es la hora. Programa electoral del Partido Popular de Navarra. Elecciones Forales 2015*, Iruñea, 2015.

IZQUIERDA-EZKERRA. *En Navarra izquierda, Nafarroan ezkerra*, Iruñea, 2015.

6.2. PRENTSAKO ARTIKULUAK

ARNEDO, B. (a). “Los otros repiten que Pamplona es un desastre, pero no cuela”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 18koa; 17. or.

ARNEDO, B. (b). “El “Agur UPN” y un cambio sin PSN, ejes del mitin central de EH Bildu”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 10ekoa; 26. or.

ARNEDO, B. (c). “Nuin: “El cambio debe ser real, no de caras o siglas”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 15ekoa; 24. or.

BERRIA (a). “Erriberan ere aldaketa nahi du Geroa Baik”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 12koa; 8. or.

BERRIA (b). “Bere hizkuntza politika aurkeztu du Geroa Baik”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 15koa; 9. or.

BERRIA (c). “Euskararekin lotu ditu Beltranek LABen emaitzak”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 22koa; 5. or.

DIARIO DE NAVARRA (a). “Los candidatos siguen sin desvelar sus intenciones sobre posibles pactos”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 9koa; 21. or.

DIARIO DE NAVARRA (b). “Geroa Bai, EH Bildu y Podemos eliminarán las zonas del euskera”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 17koa; 27. or.

DIARIO DE NAVARRA (c). “Barkos aboga en Tudela por “un cambio capaz, sereno y rotundo”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 11koa; 21. or.

DIARIO DE NAVARRA (d). “Geroa Bai defiende que haya una “discriminación positiva” hacia el euskera en Navarra”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 15koa; 24. or.

DIARIO DE NAVARRA (e). “Casa Luna, escuela infantil en euskera para Geroa Bai”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 19koa; 27. or.

DIARIO DE NAVARRA (f). “PP propone que el euskera no cuente como mérito para acceder a la Administración”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 12koa; 21. or.

DIARIO DE NOTICIAS (a). “UPN sube el tono y alerta del “caos” que supondría un cambio de Gobierno”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 16koa; 23. or.

DIARIO DE NOTICIAS (b). “Geroa Bai defiende la discriminación positiva para el euskera”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 15koa; 23. or.

DIARIO DE NOTICIAS (c). “Geroa Bai reivindica una nueva escuela infantil en Casa Luna”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 19koa; 20. or.

DIARIO DE NOTICIAS (d). “Geroa Bai quiere recuperar el “orgullo” de una ciudad bilingüe”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 21ekoa; 23. or.

DIARIO DE NOTICIAS (e). “Barkos, “preparada” para gobernar”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 23koa; 20. or.

DIARIO DE NOTICIAS (f). “Asiron aspira a un plan de normalización del euskera”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 22koa; 28. or.

DIARIO DE NOTICIAS (g). “El PP plantea eliminar el euskera como baremo en la Administración”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 12koa; 22. or.

DIARIO DE NOTICIAS (h). “I-E defiende el autogobierno como garantía de los derechos sociales”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 20koa; 24. or.

DIARIO DE NOTICIAS (i). “I-E pone en valor su capacidad para “llegar a pactos entre diferentes”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 23koa; 18. or.

DIAZ, M. (a). “Esparza alerta del apocalipsis”, In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 18koa; 6-7. or.

DIAZ, M. (b). “Los Nacionalistas vascos utilizan carete”, se queja Esparza (UPN)”, In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 11koa; 5. or.

DIAZ, M. (c). “Barkos aboga por un cambio de valores, pero sin aclarar con quién”, In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 17koa; 10. or.

ENCINAS, J. (a). “Esparza tensiona más la campaña con duros ataques a EH Bildu, Geroa Bai, Podemos e Izquierda-Ezkerra”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 18koa; 18. or.

FERNANDEZ, I. “Lo mejor para la estabilidad de Navarra es un Gobierno de coalición formado por UPN, PSN y el PPN”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 19koa; 16-17. or.

FERNANDEZ, I.; ENCINAS, J. "Araiz ofrece a EH Bildu como garantía del cambio real que necesita Navarra", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 10ekoa; 18-19. or.

GARCIA, K. "La diferencia mayor con UPN es nuestra vocación para defender los intereses de Pamplona allí donde se decidan", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 17koa; 30-31. or.

GONZALEZ, I. (a). "Podemos "maquilla" su programa", In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 19koa; 18-19. or.

GONZALEZ, I. (b). "Votaríamos a quien cumpla un acuerdo de programa, ya sea Laura Pérez o Araiz", In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 16koa; 23. or.

MARTINEZ, J.A. "Uxue Barkos defiende recuperar "el orgullo por el euskera", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 11koa; 19. or.

MONREAL, J.A. (a). "O ellos o nosotros", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 18koa; 19. or.

MONREAL, J.A. (b). "Nuin presenta a I-E como la garantía de un cambio "fiable y de izquierdas", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 15ekoa; 20. or.

MONREAL, J.A. (c). "Si el cambio no tiene una clara agenda de izquierdas el poder real habrá salido ganando", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 17koa; 22-23. or.

PASTOR, I. "EH Bildu, Geroa Bai, Podemos e I-E defienden la escuela pública", In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 18koa; 27. or.

PRADILLA, A. (a). "El programa marca bloques pero no pactos en Iruñea", In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 16koa; 9. or.

PRADILLA, A. (b). "El PSN ha sido el régimen durante mucho tiempo, en sus manos está cambiar", In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 16koa; 2-3. or.

PRADILLA, A. (c). “EH Bildu se presenta como “la garantía de un cambio sólido”, In: *Gara*, 2015eko maiatzaren 10ekoa; 2-3. or.

SANCHEZ, M. “Barkos dice que sería un “caos” la suma de UPN, PSN, PP y Ciudadanos”, In: *Diario de Navarra*, 2015eko maiatzaren 17koa; 23. or.

SANCHEZ, M.; GONZALEZ, I. “Esparza a Barkos: “Usted lleva viviendo de la política más años que yo”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 12koa; 19. or.

SENAR, J. (a). “Patxi Zabaleta. Aro oso baten lekuko zuzena”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 23koa; 8-9. or.

SENAR, J. (b). “Nola fidatuko gara hainbeste aldiz traizio egin digutenekin?”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 13koa; 7. or.

URABAYEN, E. (a). “La mayoría política reitera su deseo de cambio en el primer debate electoral”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 9koa; 20-21. or.

URABAYEN, E.; RODRIGUEZ, A. “Gómez quiere una Pamplona de la que sentirse orgullosa”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 17koa; 21. or.

6.3. HAUTESKUNDE EMAITZAK

DIARIO DE NOTICIAS (j). “Resultados provisionales de las elecciones al Parlamento de Navarra”, In: *Diario de Noticias*, 2015eko maiatzaren 25ekoa; 31-33. or.

6.4. GOBERNU PROGRAMA

GEROA BAI; EH BILDU; PODEMOS; I-E. *Acuerdo programático para el Gobierno de Navarra. Legislatura 2015-2019*, Iruñea, 2015.

7. BIBLIOGRAFIA

ALLI ARANGUREN, J.C. “Perfiles institucionales de la lengua vasca en la Comunidad Foral de Navarra”, In: *Euskera*, 46-2 zenb., 2001; 987. or.

ENERIZ OLAECHEA, F.J. “El euskera en la administración Local de Navarra”, In: RAZQUIN, M; LARUMBE, P. *La administración Local de Navarra*, Iruñea: Aranzadi, 1987; 308 eta hurr. or.

IZU BELLOSO, M.J. *El régimen lingüístico del al Comunidad Foral de Navarra*, Donostia: Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa, 2013.

MONREAL ZIA, G. “Nafarroako Euskararen Legearen jatorria”, In: *Eleria*, 11, 2003; 13. or.

ZABALETA, P. “Aro oso baten lekuko zuzena”, In: *Berria*, 2015eko maiatzaren 23koa; 9. or.